# Norberto Almandoz Mendizabal

(Astigarragan 1893 - Sevillan 1970)

*Apaiz eta Musikagile*

Sacerdote y Compositor

Jose Luis Ansorena

Argitaratzaile / Editor:
Astigarrako Udala

Autorea / Autor:
Jose Luis Ansorena

Itzulpena / Traducción al euskera:
JAIDURA Taldea
Urbieta 3 - 2º Ezk. Donostia

Legezko Gordailu / Dep. Leg.: S. S. 294/93

Imprimaketa: Lit. Danona S. Coop. (Oiartzun)

## Sarrera

Norberto Almandoz Mendizabal jaunaren lehenengo mendeurrenean argitaratzen dan liburu hau, Jose Luis Ansorenak (ERESBILgo Zuzendaria) egindako laburbilketa liburua, haren familiak bere eskuetan harri zituen dokumentuez egindakoa da.

Mendeurren hontarako ekintzak antolatzeko batzordeak (Astigarragako Udalak, Txistulari Taldea ren ekimenez sortutako batzordea) ospatutako lehen bileratik azaldu zen argitalpen honen beharra, zeren eta argi ikusi bait zen euskal musikagile eta kritikari hau ez dela oso ezaguna Euskal Herriko musika giroan izan ezik.

Ohore haundia da neretzat liburu eder honen sarrera egitea, hemen jasotzen bait dira Barberuene etxean, orain dela ehun urte jaio zenaren bizitza eta lanen alderdi garrantzitsua. Beraz, bidezkoa da Astigarragako herriak berriro bere merituak oso nabarmen ospatzea, gazteek lan hauengandik ikasi eta herria eta kulturaren aldeko gogoa susper dezaten .

Astigarragatar seme Ospetsu honek, bere bizitza elizaren eta musikaren alde emanez, hogeigarrenengo urteetan jadanik zabaldu zuen Astigarragaren izena, eta hain zuzen 1.925eko Irailak 3an gure herri korporazioak, zorionak eman zizkion Hondarrabian irabazi zuen sari garrantzitsuaren gaitik.

Gerora, 1.971. urtean, plaza bat eskaini zitzaion bere izenari eta plaka oroigarri bat jarri bizi izan zen etxean.

Ekainaren 6ean, Udal korporazioa, osoko bilkura berezi batera deituko dut, Norberto Almandoz Mendizabal jauna Astigarragako seme ospetsu izendatzearren.

Sarrerako hitz hauek bukatu aurretik, nere eskerrik beroena, lagundu diguten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultur Departamentuari, Kutxa Fundazioari, Astigarragako Udalari, komisioko lankide guztiei, eta bereziki lan eder honen egileari, hauen aleginak eta diru laguntzak egin baidute idazlan hau argitaratzea, lan jator hau dela bitarteko.

## Introducción

En el centenario del nacimiento de D. Norberto Almandoz Mendizabal, sale a la luz este libro, que, es una resumida recopilación realizada por D. Jose L. Ansorena, (Dtor. de ERESBIL ) de entre los documentos que la familia depositó en este ente.

La necesidad de esta publicación se constata en las primeras reuniones que celebró la comisión organizadora de los actos del primer centenario (que fué creada por el Ayuntamiento a iniciativa de los txistularis de Astigarraga ) ya que se considera que este gran músico y crítico musical euskaldun, es un gran desconocido fuera del ambiente musicólogo de Euskal Herria.

Es un gran honor para mi el poder hacer esta introducción a este hermoso libro, que recoje una parte importante de la vida y obras de aquel gran hombre que nació hace cien años en la casa Barberuene y a base de grandes esfuerzos logró dar lo mejor de lo que llevaba en su ser, por tanto es justo que el pueblo de Astigarraga le vuelva a reconocer notoriamente sus méritos, y que estos actos sirvan de orientación y estímulo a nuestra juventud.

Este hijo de Astigarraga que dedicó su vida a la iglesia y a la música, ya extendía el nombre de Astigarraga en la prensa escrita allá por los años veinte, y concretamente el 3 de Septiembre de 1.925. la corporacion local le felicitó por escrito por un importante premio que le otorgaron en Hondarribia.

En el año 1.971 se le dedicó una plaza con su nombre y se descubrió una placa conmemorativa en la casa que él vivió. Para el día 6 de Junio convocaré un pleno extraordinario para nombrar a D. Norberto Almandoz Mendizabal hijo Ilustre de la Villa de Astigarraga.

Quiero terminar esta introducción al libro, agradeciendo sinceramente a los colaboradores como el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Fundacion Kutxa, Ayuntamiento de Astigarraga, y a todos los miembros de la comisión organizadora de los actos del primer centenario y en especial, al autor, que han hecho posible esta publicación.

**Mikel Zabala Arregi** Alkate - Lehendakaria

## Aurkibide


**Astigarragako Alkatearen agurra** .......... 7

**I HITZAURREA** .......... 11

**II HITZAURREA** .......... 13

**I KAPITULUA:** Astigarraga eta Almandoz-Mendizabal familia .......... 19
Norberto Almandozen haurtzaroa eta gaztaroa. .......... 21
Bere musika eta eliz ikasketak eta apaizgintza. .......... 25

**II KAPITULUA:** Lehen destinoa eta Orense eta Sevillako oposizioak .......... 31
Bere ikasketak Parisen eta musikagilearen hastapen urratsak .......... 34

**III KAPITULUA:** Norberto Almandoz, euskal musikagilea. .......... 43
Bere musikaren estetika berria. .......... 51
Pedagogoa eta organista .......... 55

**IV KAPITULUA:** Sevillako Kontserbatorioaren sortzaile. .......... 63
Katedraleko Kalonje eta Kapera-Maisu .......... 73

**V KAPITULUA:** Kontzertu antolatzaile. .......... 83
ABCko kritikaria, Sevillako argitalpenean (1935-1970) .......... 88

**VI KAPITULUA:** Musika biblioteka-artxiboa eta Norberto Almandozi idatzitako gutunak .......... 99
Bere nortasun izpiritual eta gizatiarra .......... 105

**VII KAPITULUA:** Norberto Almandozen erretiroa, beherakada eta heriotza .......... 133


## Indice


**Saludo del Alcalde de Astigarraga** .......... 7

**PROLOGO I** .......... 11

**PROLOGO II** .......... 13

**Capítulo I:** Astigarraga y la familia Almandoz-Mendizabal. .......... 19
Infancia y adolescencia de Norberto Almandoz. .......... 21
Sus estudios musicales y eclesiásticos y su ordenación sacerdotal. .......... 25

**Capítulo II:** Su primer destino y sus oposiciones en Orense y Sevilla. .......... 31
Sus estudios en París y su trayectoria inicial de compositor .......... 34

**Capítulo III:** Norberto Almandoz, compositor de música vasca. .......... 43
Su nueva estética musical. .......... 51
El pedagogo y el organista. .......... 55

**Capítulo IV:** Fundador del Conservatorio de Sevilla. .......... 63
Canónigo y Maestro de Capilla de la Catedral. .......... 73

**Capítulo V:** Promotor de conciertos. .......... 83
Crítico del ABC, edición de Sevilla (1935-1970). .......... 88

**Capítulo VI:** El archivo-biblioteca musical y las cartas a Norberto Almandoz. .......... 99
Su personalidad humana y espiritual. .......... 105

**Capítulo VII:** Jubilación, declive y fallecimiento de Norberto Almandoz. .......... 133

Eranskinak:
**1. zenb.** Norberto Almandozen musikalanen katalogoa ........ 141

**2. zenb.** ABC, ARCHIVO HISPALENSE, CALVARIO, CRUZ DE GUIA, TESORO-SACRO-MUSICAL eta KATAZKAN argitaraturiko lan literario-musikalen zerrenda. ........ 147

**3. zenb.** ABC aldizkarian argitaraturiko zenbait musika-literatura lanen hautapena: ........ 181

A. Otaño, San Fernandoren Arte Ederretako akademikoa ........ 183
Bernardo Gabiola ........ 184
Gayarre, tenore aingerutiarra ........ 185
Juan Tellería Maisu musikagilea hil da Madrilen ........ 186
Arazeli Andre Mariaren Koroapenaren aurrean. Saritutako himnoa ........ 187
Enrique Llovet eta J. Leoz Maisuaren "Retablo de Navidad" ........ 188
Donostiako "Maitea" abesbatza ........ 189
Donostiako Katedraleko organo monumentala ........ 190
Bizente Goikoetxea Maisua jaio zeneko Lehen Mendeurrena ........ 191
Enrique Jordá, Californiako San Franciscoko Orkestraren zuzendaria ........ 193
Guridi Maisua eta lehiaketan saritutako bere Meza ........ 194
Espainiar organista bikaina - A. Julian Sagasta ........ 196
San Inazio, Jesusen Lagundia, musika ........ 197
Arriagari omenaldia ........ 199
A. Donostiaren musikalanak ........ 200
"Zigor", Francisco Escuderoren euskal opera ........ 201
"Igandeko Meza" - Juan Urteagarena ........ 203
Kanpaia-joleen lehiaketa ........ 204
Busca de Sagastizabal Maisua jaio zeneko Mendeurrena ........ 205
Usandizaga eta bere "Cuarteto sobre temas vascos" ........ 206
Juan Bautista Elustiza hil zeneko Mendeurrena ........ 207

Apéndices:
**Nº 1** Catálogo de obras musicales de Norberto Almandoz. ........ 141

**Nº 2** Lista de trabajos literario-musicales editados en ABC, ARCHIVO HISPALENSE, CALVARIO, CRUZ DE GUIA, TESORO-SACRO-MUSICAL, KATAZKA. ........ 147

**Nº 3** Selección de algunos de los trabajos literario-musicales editados en ABC: ........ 181

El P. Otaño, académico de Bellas Artes de San Fernando. ........ 183
Bernardo de Gabiola. ........ 184
Gayarre, el tenor angélico. ........ 185
Ha muerto en Madrid el compositor musical Maestro Juan Tellería. ........ 186
Ante la próxima Coronación de la Virgen de Araceli. El himno premiado ........ 187
"Retablo de Navidad", de Enrique Llovet y Maestro J. Leoz. ........ 188
Coro "Maitea" de San Sebastián. ........ 189
El monumental órgano de la Catedral de San Sebastián. ........ 190
I Centenario del nacimiento del Maestro Vicente Goicoechea ........ 191
Enrique Jordá, director de la Orquesta de S. Francisco de California ........ 193
El Maestro Guridi y su Misa premiada en el concurso. ........ 194
Un eminente organista español - El P. Julián Sagasta ........ 196
San Ignacio, la Compañía de Jesús, la música. ........ 197
Homenaje a Arriaga. ........ 199
Obras musicales del P. Donosti. ........ 200
"Zigor", ópera vasca de Francisco Escudero... 201
"Igandeko Meza" - Misa de los domingos - de Juan Urteaga. ........ 203
Concurso de repique de campanas. ........ 204
Centenario del nacimiento del Maestro Busca de Sagastizabal. ........ 205
Usandizaga y su "Cuarteto sobre temas vascos". ........ 206
Cincuentenario de la muerte de Juan Bautista Elustiza. ........ 207

## I Hiztaurrea

Laburra izatea eskatzen du Norberto Almandoz musikariaz idatzitako liburuaren hitzaurreak, Jose Luis Antsorenak hain argi eta garbi eta garden eginiko idazlana izanik ere.

Hainbat eta hainbat oroitzaperen jabe naiz duela hogeita bi urte Sevilla hirian hil zen euskal musikari honetaz, baina hiru dira nere oroimenera aldi berean heltzen diren erreferentziak: Astigarragari zion maitasuna, bere izaera apal eta txeratsua eta berak hainbat aldiz idatzi eta errepikatu ohi zuen esaldia: "gora gizon azkarrak".

Parisen ikasketa garaian egon zen denboran, eta Orense nahiz Zaragoza hirietara egin ibilaldiren batetik at, D. Norbertoren bizitza bi polotan kokatu zen: Sevilla eta Astigarraga. Lehenengoan, harat-honateko handia jasan zuen, katedralea eta musika kontserbatorioaren artean. Berak eraiki zuen hau. Gainera ABC egunkarian kritikari eta hainbat kultur erakundetan eragile izan zen. Euskaldunen Kontsul gisako zerbait izana dugu han gure gizona.

Haurraren maitasun samurra izan zion beti bere jaioterriari eta haurtzaroa nahiz gaztetan bizi izan zen ingurumunduari: Hernani, Tolosa, Donostia eta Mutriku. Maitasun tinkoa benetan. Noizbait esan izan dut Sevillako kale batetan gertatua andaluz batek euskaldun bat aurkeztu ziolarik. D. Norbertok berehalakoan galdegin zion nongoa zen eta honek "Gasteizkoa" erantzun; hala esan zion sorbaldan eskuaz jotzen ziolarik: "Bai, bada zerbait". Horrelakoxea genuen D. Norberto.

Andaluzen hiri nagusi hartatik aldenduz, udako beroa eta harat-honatak utziz, udako hilabeteetan hemen izan ohi genuen gure lurraldeko mendi eta haranak poeta izpirituz gozartzera etorrita. Lagunarte handikoa zen eta batez ere amarenganako txera nabarmenki erakusten zuen. Segura Kardinalea, Kalonje izatea eskatu zionean, harriturik utzi zuen, gauzak ongi pentsatzearren astebeteko epea eskatu baitzion hark. Amarekin kontsultatu ondoan, baiezkoa izan zen amaren erantzuna, baldin eta Jainkoaren gorespen eta haintzarako bazen, eta alderantziz, ezezkoa, harrokeria edo handikeriarako baldin bazen.

## Prólogo I

Corto tiene que ser un prólogo o itz-aurrea de un libro sobre Don Norberto Almandoz, escrito con transparencia y limpidez por José Luis Ansorena.

En los muchos recuerdos que me acompañan de este músico guipuzcoano, fallecido hace ya veinte y dos años en Sevilla, siempre acuden conjuntamente a mi memoria tres referencias: su amor a Astigarraga, su modestia y humildad, y la frase, que tantas veces escribió y me repetía, de "alabemos a los varones gloriosos".

Fuera de sus estudios en París, y su incursión a Orense y Zaragoza, la vida de D. Norberto estuvo polarizada en dos lugares: Sevilla y Astigarraga. LLevó en la prinera una vida ajetreada entre la catedral, el Conservatorio de Música, del que fuera fundador, como crítico de A B C y de otras entidades culturales. Fué allí algo más que cónsul de los vascos.

Con amor de niño quiso a su pueblo natal y todo lo que rodeó su infancia y juventud: Hernani, Tolosa, San Sebastián y Motrico. Un amor muy local. Alguna vez he referido lo que le sucedió en una calle de Sevilla, cuando un andaluz le presento a un vasco. A la pregunta inmediata de D. Norberto"de dónde era"y ser contestado "De Vitoria", le echó la mano sobre la espalda mientras le decía "Bueno, algo es algo". Así era D. Norberto.

Lejos del calor y de su ajetreada vida sevillana, D. Norberto disfrutaba, con el permiso romano de tres meses de vacaciones, con alma de poeta los valles y montes de su tierra, rodeado del afecto de sus numerosos amigos y la presencia de su madre, que afloraba muchas veces en sus labios. El cardenal Segura, al ofrecerle una canongía, quedó sorprendido ante su petición de una semana para pensarlo. Consultó el caso con su madre quien le dijo que sí, siendo para alabanza y gloria de Dios, pero con la recomendación negativa si era "para vanidad de vanidades".

Dotado de una amplia y profunda cultura, de una permanente curiosidad e inquietud, D. Norberto

Kultura zabal eta sakonez jantzia genuen D. Norberto. Atergabeko jakingura eta kezka erakutsi zituen. Batere gehigarri eta abazurik gabeko neurritasun eta apaltasun dotoreko gizona zen. Ezin gehiagoraino erlijiosoa eta Andre Mariarenganako jaiera handikoa, areago iduri zuen XVI. mendeko apez musikari horietakoa, hala nola Tomas de Victoria, Palestrina edo Guerrero bat, musikaren bidetik egungo egunetakoa bazen ere. Hori bai, disko eta kasseteetako musika, "latorrizko musika" zela zioen berak. Gozartuz bizi zituen abesbatza eta kontzertuak entzutea eta "de visu" gainera, ikusmena entzumenarekin bateratuz.

Zenbat bider idatzi zuen eta errepikatu zidan "lauda ditzagun gizon prestuak" Bibliaren harako esaldi hura. Bururatu ote zitzaion inoiz Astigarragako herriak, oroitzapenez, omenaldi bat eskainiko zionik? Galdera horren aurrean zalantzarik aski badut.

Datorren ekainean, bere jaioteguneko ehun urteurrena dela eta, ongi egin du Astigarragako herriak "herriko seme ospetsu" izendatzea, hainbat ekintza antolatuz: argitalpenak, hitzaldiak, idatziak, etab. Bere seme goraipatuak oroitzen dakien herria gorakadan doa beti ere, eta oroitzapen dohatsu hauekin berea den historia bilbatzeko bidea egiten du.

D. Norbertok bere sorterria ezagutzera eman zuen, hainbat eta nonahiko adiskideei eman ere, itzal handiko gizona zenez adiskidego ugaria izan baitzuen.

Balaku eta zurikeriarik gabe esango dut, beti ere presente egon zela musika, artegintza eta literatur munduetan. Gorakadan joan zen XX. mendearen bigarren erdialdeko apez eta musikari handi bat dugula D. Norberto, oroitaraztea zinez merezi duen gizona, osotasun handiko eta maitagarria zenez, lagunarte aberatsa bereganatu eta bihotz zabal baten eraginpean atergabe aurrera jo zuena. Ez dugu adibide makala, bera eta berak erakutsi zuen bidea.

Apeztu zeneko urrezko ezteiak ospatzekoan, labur izateko gomendatu zidan. Hitza bete nuen orduan eta hitza bete dut orain. Ez du bada, kexurako biderik.

D. Norberto, gauza asko ikasi nuen zure ondoan. Erakutsi denoi zure dohaiak.

*Jose Garmendia Arruebarrena*

era la expresión elegante de la modestia y de la humildad, sin añadidos ni aderezos. Profundamente religioso y amante de la Virgen, más parecía un sacerdote músico del siglo XVI, un Tomás de Victoria, un Palestrina o Guerrero; sin negarle su seguimiento de la música más avanzada. Eso sí, no le gustaba la música de los discos y cassetes, "música de lata" que diría él. El disfrutaba de los coros y conciertos en vivo y de "visu".

Cuando tantas veces escribió y me repetía lo de "alabemos a los varones gloriosos", que lo había sacado de la Biblia ¿se figuró alguna vez que Astigarraga se acordaría de él y le homenajearía?. Ante la pregunta, no salgo de mis dudas.

Con motivo de cumplirse el 6 de junio el centenario de su nacimiento, bien ha hecho Astigarraga en nombrarle "hijo ilustre", organizando una serie de actos-publicaciones, conferencias, escritos, etc, etc. Un pueblo que sabe recordar a sus hijos esclarecidos, es un pueblo siempre en alza y enguirnalda su historia con estas felices memorias.

D. Norberto dió a conocer y extendió entre sus muchas y variadas amistades el pueblo, que le vió nacer, y atrajo a su presencia personalidades de mucho prestigio.

Sin halagos ni mitificaciones, presente como siempre estuvo en los círculos musicales, artísticos y literarios, la figura de D. Norberto se alza en la segunda mitad del siglo XX como un gran sacerdote y un gran músico, digno de ser recordado, un hombre que supo granjearse la amistad de muchos por su entereza y amor, con un corazón muy grande que le daba siempre impulso para ascender a más. No es pequeño el ejemplo que nos ofrece, ni descaminado el camino que nos señala.

Cuando celebró sus bodas de oro sacerdotales me recomendó que fuera breve. Cumplí su palabra y la cumplo ahora en que no se me puede quejar.

Don Norberto, gauza asko ikasi nituen zure ondoan. Erakutsi beti denoi zure doaiak.

*José Garmendia Arruebarrena*

## II Hiztaurrea

### ALMANDOZ MAISUA

Norberto Almandoz, apez eta musikegilea izan zenaren lan biografiko baliotsu hau idatzi duen Jose Luis Ansorena adiskideak, hitzaurre gisako lerro batzuk eskatu zizkidan martxoaren hasieran. Duela hogeita lau urte, 1969.eko martxoaren 3an, eskari berbera egin nion on Norbertori hots, 1968.eko irailaren 3an hasita, Euskal Musika liburorako igortzen nizkion originalentzat idatz zezala hitzaurrea. Hainbat gutun eta elkarrikustetan argibide preziatuak eta aholku zuzenak 1967tik eman zizkidan iturri agortezin horrek, ezin zuela halakorik egin idatzi zidan, bihotzeko minak ardura astunak hartzea galerazten ziolako. Egia esan, ez zuen batere horren eginbeharrik. Nik, ordea, ezin diot Ansorena adiskideari eskatzen didana ukatu, asko zor baitiot, eta are gehiago Almandoz maisuari.

Biei zor diet, beste gauza askoren artean, aipatu nire liburuaren argitarapena. Sibiliatik Astigarragara ekarri zutenean Almandozen liburutegia, bidali nizkion folioak bertan agertu ziren. Ustegabeko aurkitze hau atsegina gertatu zitzaion Ansorena adiskideari, eta bera izan zen 1976an nire liburuaren argitarapena bultzatu zuena. Niretzat ezinezkoa zen egintza hau Almandozen eskutik gauzatu zen, euskal musikaren historia liburua izatera iritsi baitzen bi adiskide hauen laguntzaz.

On Norberto Almandozekin nire gutun harremanak 1967.eko ekainean hasi nituen. Guernica izeneko operaz beronen artikulua irakurri ondoren, argibideak eskatu nizkion, baita Paul Vidal musikegileaz, Almandozek Parisen ezagutu zuena. Nik nire aldetik Luigi Nonoren La Victoire de Guernica bidali nion. Begirunezko lehen harreman hau adiskidetasunezkora heldu zen 1967.eko urriaren lehen hamabostaldian arratsalde osoa berarekin bete nuenean. Orduan aipatu zizkidan Iparragirreren Kantuak eta sei Euskal Kantuak ahots eta pianorako berak harmonizatuak. Lehenei buruz, Bitor Zubizarretari aztertzeko emanaz gain, zera proposatu nion Almandozi, hots, Bizkaiko Diputazioaren Kultura Batzordeak argitaratzeko Jose Maria Olaizola (1893an jaioa hau ere) prestatzen ari zen liburuan kaleratzea, baina ezin izan zen asmo hau

## Prólogo II

### EL MAESTRO ALMANDOZ

El autor de este libro, el amigo Jose Luis Ansorena, me pedía a principios de marzo algunas palabras que sirvieran de prólogo a su importante trabajo biográfico sobre Norberto Almandoz, sacerdote y compositor. Hace justamente veinticuatro años, el 3 de marzo de 1969, hacía yo igual petición a don Norberto, rogándole escribiera un prólogo para el libro Música Vasca, cuyos originales le fuí enviando desde el 3 de septiembre de 1968. Quien desde 1967, en cartas y entrevistas, había sido fuente de valiosas informaciones y acertados consejos, me escribió que no podía hacerlo pues su enfermedad cardíaca le impedía tomarse estas preocupaciones. No tenía, en realidad, obligación alguna de hacerlo. Yo en cambio no me puedo negar a la petición del amigo Ansorena pues debo mucho a éste, y cómo no, al maestro Almandoz.

A ambos debo, entre otras muchas cosas, la publicación de mi citado libro. Cuando la biblioteca de Almandoz fué trasladada de Sevilla a Astigarraga, aparecieron los folios que le había ido enviando. El amigo Ansorena se vió agradablemente sorprendido por el hallazgo y fué quien impulsó su edición en 1976. De la mano de Almandoz llegó a hacerse libro una historia de la música vasca que yo difícilmente hubiera podido editar.

Con don Norberto Almandoz inicié yo mi relación epistolar a mediados de 1967. Leido un artículo suyo, le pedí datos sobre la ópera Guernica de Paul Vidal, a quien, según me dijo, había conocido en París. Yo, por mi parte, le facilité La victoire de Guernica de Luigi Nono. Esta primera respetuosa relación epistolar se convirtió en amistosa cuando en la primera quincena de octubre de 1967 pasé una tarde entera con él en Astigarraga. Fué entonces cuando me habló de las Cuatro canciones de Iparraguirre y de seis de sus Canciones vascas para canto y piano. Sobre las primeras, además de someterlas al análisis de Victor Zubizarreta proponía yo a Almandoz publicarlas en un libro que Jose Maria Olaizola (nacido también en 1893) preparaba para ser editado por la Junta de Cultura de la Diputación de Bizkaia, lo que no pudo realizarse



Geografía e Historia

burutu argitarapena prestatuta gero itzuli zizkiolako Ervitik partiturak. Euskal Kantuak gaztelaniara itzulitako testuekin nahi zituen argitaratu Almandozek. Antonio Alberdik (1893an jaio zen beste euskal musikua dugu hau) musikatutako kantu batzuei Mutuberria andereñoak jarritako itzulpenak gustatzen zitzaizkion Almandozi. Alberdirekin harremanetan nengoen orduan ni, Gernikako organua elektrifikatzeko lanetan zebilelako organugile hau. Baina aipatu itzultzailea jadanik hila zen eta beste itzultzaile batzuekin izan nituen harremanak moztu ziren Almandozen heriotzarekin.

Etengabe jarraitu nuen Almandozekin gutunetan eta berriz elkar ikusi genuen Astigarragan 1968.eko uztailaren lehen hamabostaldian. Bitartean urte bereko udaberrian, Basauriko espetxean atxilotua izan nintzen. Maitekiro gordetzen ditut orduan Almandozek nire emazteari idatzi zizkion bi gutunak, adore emanez eta egoera larria hainbat arinen buka zedin desiratuz. Pentsamolde ezberdinetaz Almandozek zeukan orekatasuna baieztatzen du honek, Ansorenak biografian esaten duen bezala. Ostera bat egin zuen on Norbertok Gernikara, irailaren 23tik 26ra, Demetrio Artola osagilearen etxera, zeinek Jose Luis Amezaga kardiologoaren kontsultara eraman zuen musikua. Azken egunean, txengo bat eginez, Bermeotik Sollube mendira eraman nuen, bitartean Bakion bazkaldu genuelarik. Beti bezala, argibide oso baliotsuak eman zizkidan etengabe mintzatuz. Denetatik bereiztu nahi nituzke 1920an Parisen egin zuen egotaldiari dagozkionak. Bertan aurkitu zituen Jose Antonio Donostia eta Miguel Etxebeste organulari lesakarra (1893an jaioa hau ere). Gipuzkoako Diputazioaren beka lortu zuenean Florent Schmitt (1870-1958) irakaslearekin ikasketak egitea burutu zitzaion, baina Ravelen iritzia ezagutzen zuen aita Donostiaren aholkua jarraituz, Eugene Cools (1877-1936) irakaslea hautatu zuen ezkenean, donibandarra bezala André Gédalgeren (1856-1926) ikaslea, eta Almandozen esanetan, honen laguntzailea. Egun horretan oharrez bete nuen koaderno txiki bat. Zer ez zekien gizon honek!. Baina harritzen nauan gauza da, Sibiliako katedralean organularia izanik, Pariseko organu eskola famatuaren aipamenik ez zidala egin. Aipatu Gédalgeren musikalanaz luze hitzegin zidan, baita Emile Paladilhe (1844-1926) ere gogokotzat zeukan; baina, behar bada, gehien estimatzen zuena Erik Satie (1866-1925) zen, Parisen ezagutu zuena, zeinen musikalanak eragin handia izan zuen Almandozengan. Satiek -esan zidan Almandozek- Debussy-rekin batera, ahalegin handiak egin zituen Frantziako musikatik Wagner-ena aldentzeko. Beharrezkoa zen musika-hizkuntza frantsesa sortzea, Debussyk lortu zuena. Geroztik gure musikuak euskal musikari eta, are gehiago, euskal harmoniari eskaini ziona ulertzeko datu hau interesgarria iruditzen zait. Birritan ikusi nuen nigarrez Almandoz iraileko 26 egun horretan.

porque Erviti se las devolvió después de preparada la edición. Sobre las Canciones vascas quería Almandoz que se publicaran con versión castellana de los textos vascos. Gustaban a Almandoz las traducciones que la senorita Mutuberria había hecho para algunas canciones de Antonio Alberdi (otro músico nacido en 1893), Mantenía yo contacto con Alberdi porque por aquellas fechas estaba trabajando en la electrificación del órgano de Gernika. Pero la traductora había fallecido y las gestiones con otros posibles traductores quedaron cortadas por la muerte de Almandoz.

Siguió con asiduidad mi correspondencia con don Norberto y nuevamente en la primera quincena de julio de 1968 le visité en Astigarraga. Entretanto, y en la primavera de ese año, había sido yo encarcelado en Basauri. Guardo con cariño las dos cartas que escribió Almandoz a mi mujer, animándola y deseando terminara pronto esa situación. Ello confirma lo que en la biografía dice Ansorena sobre la ecuanimidad de don Norberto para con las diferentes formas de pensar. Del 23 al 26 de septiembre vino a Gernika, a casa del médico don Demetrio Artola, quien le llevó a la consulta del cardiólogo don Jose Luis Amezaga. El último día le llevé de excursión por Bermeo a Sollube, con comida en Bakio. Como siempre,no cesó de facilitarme informaciones valiosísimas. Pero de todas ellas quisiera resaltar las que se refieren a su estancia en París en 1920. Coincidió allí con Jose Antonio de Donostia y con el organista lesakarra Miguel Etxebeste (nacido también en 1893). En principio, tras obtener la beca de la Diputación de Gipuzkoa, había pensado acudir a las clases de Florent Schmitt (1870-1958), pero por indicación del padre Donostia,a su vez aconsejado por Ravel, acudió a las clases de Eugene Cools (1877-1936), discípulo como el donibandarra de André Gédalge (1856-1926) y al decir de Almandoz "pasante" de éste. Ese día llené de notas un pequeño cuaderno. ¡Qué no sabía este hombre! Pero siendo organista de la catedral de Sevilla, nada me dijo de la escuela de órgano de París. Me habló largamente de la obra del citado Gédalge, de Emile Paladilhe (1844-1926), y sobre todo de Erik Satie (1866 1925) a quien conoció y cuya obra dejó profunda huella en Almandoz. Satie -me decía Almandoz-había iniciado con Debussy una campaña para desterrar a Wagner de la música francesa. Había que crear un idioma musical francés, lo que ya logró Debussy. Creo que este dato es importante para explicarnos la dedicación de nuestro músico a la canción vasca, y aún más, a la armonía vasca. Pero ese día 26 de septiembre le vi llorar dos veces. Una, cuando me dijo que "a esos músicos no católicos espero verlos en el cielo", nueva muestra de su gran corazón; y otra, cuando de vuelta a Gernika le canté en el coche el Ave María de Cesar Franck. Yo también lloré y se me cortó la voz.

Bata, zera esan zidanean: "Katolikoak ez diren musiku horiek zeruan ikusiko ditudalakoan nago", zeukan bihotz handia berriz ere erakutsiz; eta bestea, Gernikara itzulian, Cesar Franck-en Ave Maria automobilean kantatu nionean. Nik ere nigar nuen eta ahotsik gabe geratu nintzen.

Sibilian bertan Ikusi nuen gero 1969.eko abenduaren 7an. Astigarragatik etorri berria zen, udako egotaldia luzatu beharrean aurkitu baitzen miokardio infartuaren zioz. Sibiliara lehendabizi heldu zen Almandoz 1919an, lehen organulari lanpostua betetzera, zeinetan ihardun zuen 20 urteren zehar, 1939an kapel-maisu izatera heldu arte, lanpostu honetan ere beste 20 urte bete zituelarik 1959an jubilatu arte. Sibiliako katedralera iritsi zenean, bi organu zeuzkan, Arzedianoaren korukoa eta Deanaren korukoa, biak Akilino Amezua euskal organugileak eraikiak 1901 eta 1903an. Lehenago soinu egin zuten katedrale honetan beste euskal organugileek eraikitako edo berriztaturiko organuek, hala nola Joseph Etxebarria (1697), Domingo Agirre (1723), edo Euskal Herrian lanean ari ziren Diego de Orio (1725) eta Pedro Roqués (1870). Eta organu horietan jo zuten Jose Caseda, Hilarion Eslaba eta Bentura Iñiguez nafarrak, eta Juan Bautista Elustiza gipuzkoarrak, azken hau hil zenean Almandozek bete zuelarik hutsunea. Gainera, Eslaba, Iñiguez eta Elustiza musikologia lanetan aintzindari izan zituen Almandozek, denek baitakigu on Norberto, apez eta musikegilea izanik, organularia, zuzendaria, irakaslea eta musikologoa ere izan zela,Jose Luis Ansorenak paratu duen liburu honetan ikus dezakegunez.

Irazkin honen atariko izenburura itzuli nahiko nuke amaitu orduko. Musikaren alor guztietan izan zen maisu on Norberto Almandoz, baina denen gainetik musikagintzan eta musikologian. Azken ikaskizun honetan izan zen niretzat benetako maisua, eta maisutza horretan nire ikuspegia larregi azaltzea parkatuko dit irakurleak. Baina zerbaiten nabarmendu bazen, umiltasunean izan zela maisu esango nuke, gizon handiak egiten dituen birtute horretan, hain zuzen. Gutun batetan honako hau idatzi zidan: "Nire Musikalanen katalogoan tinta gutxi gasta ezazu. 'Elizarako musikalanak eta profanoak ere idatzi zituen, hauetatik batzuk lehiaketetan garituak'. Honekin nahiko eta sobera duzu". Pertsona eta beronen lana preziatu izan dugunok, ez dugu, egia esan, borondate umil hura errespetatu.

On Norberto Almandoz Mendizabal 1970.eko abenduaren 7an hil zen, Sibilian berarekin egon nintzen egunaren urteburua doi-doi bete zenean. Aitortu zidan orduan miresten eta maitatzen zituen musikuekin zeruan bizitzeko garaia laster iritsiko zitzaiola.

*Jose Antonio Arana Martija*

La siguiente vez le vi en Sevilla el 7 de diciembre de 1969. Acababa de llegar de Astigarraga donde prolongó su estancia por causa de un infarto de miocardio. Almandoz había llegado por primera vez a Sevilla en 1919, con plaza de organista primero que ejerció durante 20 años hasta 1939 en que accedió a la plaza de maestro de capilla en la que se mantuvo durante otros 20 años hasta que se jubiló en 1959. En la catedral de Sevilla se encontró con dos órganos, el del coro del Arcediano y el del coro del Deán, ambos construidos por el vasco Aquilino Amezua en 1901 y 1903 respectivamente. Anteriormente habían sonado en esta catedral órganos construidos o renovados por otros organeros vascos como Joseph Echevarria (1697), Domingo Aguirre (1723) o por organeros que trabajaban en el Pais Vasco como Diego de Orio (1725) y Pedro Roqués (1870). Y en esos órganos habían tocado los navarros José Caseda, Hilarión Eslaba y Bentura Iñiguez, y el guipuzcoano Juan Bautista Elustiza a quien, a su muerte, sustituyó Almandoz. Además, Eslaba, Iñiguez y Elustiza le habían precedido en labores de musicología, porque de todos es sabido que don Norberto, además de sacerdote y compositor, fué organista, director, pedagogo y musicólogo, como podremos ver a lo largo de las páginas de este libro de Jose Luis Ansorena.

Quisiera terminar este comentario liminar volviendo al título del mismo. Don Norberto Almandoz fué maestro en todos los aspectos de la música, pero sobre todo en la composición y en la musicología. En esta última disciplina fué donde más pude aprender de él, y me perdonará el lector que a lo largo de estas líneas haya personalizado tanto mi visión del maestro. Pero sobre todo fué maestro de humildad, virtud que distingue a los grandes hombres. Me decía en una carta: "En el catálogo de mis composiciones gaste usted muy poca tinta". 'Escribió composiciones religiosas y profanas, algunas de ellas premiadas en varios concursos'. Con esto basta y sobra". Naturalmente, los que hemos apreciado su persona y su obra no hemos respetado su humilde voluntad.

Don Norberto Almandoz Mendizabal falleció el 7 de diciembre de 1970, justamente al cumplirse el año de mi estancia con él en Sevilla. Ya me había advertido entonces que le quedaba poco tiempo para pasar a vivir en el cielo con los músicos que admiraba y quería.

*Jose Antonio Arana Martija*

## Astigarraga eta Almandoz-Mendizabal familia.

Astigarraga, gure biografiatu Norberto Almandozen sehaska, Donostiatik 7 kilometrotara kokatua dagoen Herri gipuzkoar bat da, Urumea ibaiaren ertzean, lekazi, barazki, arto eta sagar ugari sortzen dituen ibar emankor bat meneratuz.

Astigarraga dugu sagardoaren kalitatearengatik ospe eta sona bereganatu dituen gipuzkoar herri horietariko bat, horrek berekin daraman "apuru" edo "txotx"aren ohituragatik edota lagunarteko "afari-merienda" ospatzeko aitzakian, maila sozial guztietako lagun taldeek sagardotegietara egiten dituzten bisitengatik.

Lerro gutxi batzutan bere jatorriaren historia-labur bat taiutuz, ikusten dugu nola 1660ean Erret Ondasunari 2.000 dukaten ordainetan Astigarraga Aiztondoko Alkatetza Nagusiko Jurisprudentziatik askatu zen. Ordurako Santiagomendin eta Urumearen ibarrean zeuden baserri bakanetakoak, eliz inguru eta Murgiako jaun-andereen Jauregi Etxeko bizilagunak elkarrenarteko harmonia onean bizi ziren.

Altza, Errenteria eta Hernaniko udalerriek inguratzen duten Astigarragako herriak 1860. urtean 1.420 biztanleko zentsua erakusten zuen. 1900ean 1.285era jaitsi zen. Baina 1960ean 1872ra heldu eta gaurregungo zentsua 3.286koa da.

Astigarragako Udala 1943an Donostiari atxeki zitzaion, baina 1987an berriro bere burujabetza eskuratu zuen.

## Astigarraga y la familia Almandoz-Mendizabal.

Astigarraga, cuna de nuestro biografiado, Norberto Almandoz, es una Villa guipuzcoana, situada a 7 kilómetros de San Sebastián, a orillas del río Urumea, dominando una vega muy feraz, que produce legumbre, hortaliza, maíz y manzana.

Astigarraga es uno de esos pueblos guipuzcoanos, que han adquirido una celebridad popular por la calidad de la sidra elaborada, por las costumbres que esto conlleva con sus tradicionales "apuru" o "txotx" o por las visitas de grupos de todas las clases sociales a las típicas sidrerías, donde poder celebrar una amistosa "afari-merienda".

Trazando en pocas líneas una mini-historia de sus orígenes, contemplamos cómo en 1660 mendiante el pago de 2.000 ducados a la Real Hacienda, Astigarraga se liberó de la jurisdicción de la Alcaldía Mayor de Aiztondo, Ya para entonces los habitantes diseminados en unos pocos caseríos de Santiagomendi y en la vega del Urumea, cerca de la iglesia y la Casa Palacio de los señores de Murguia, vivían en buena armonia vecinal.

Astigarraga, circundada por los límites de los ayuntamientos de Alza, Rentería y Hernani, señalaba en 1860 un censo de 1.420 habitantes. En 1900 descendió a 1.285. Pero ya en 1960 aumentó a 1.872 y en la actualidad el censo es de 3.236.

En 1943 el Ayuntamiento de Astigarraga se anexionó al de San Sebastián, pero en 1987 recobró su independencia.

Gaur egun, ekonomikoki goraka doan industrialde garrantzitsu batek hartzen du Astigarragako ibarraren zatirik handiena.

F. Borja Aginagalde ikertzaileak eman dizkigun datuen arabera, XVII. mende amaieran Fermín de Almandoz, sendiko beste batekin, Baztango Almandoz herrira migratu zuen, bertan zegoelako sortetxea eta bertatik izena hartu zuen Gipuzkoan kokatzeko. Donostian eta Aian zeuden abizenen lehen adarrak, XVIII. mende hasieran heldu ziren Astigarragara.

Nolabaiteko oparotasun garaian, Almandoztarrek aldi berrietako familia adieraztzen zuten. Gerora, Hernani eta inguruetako antzinako familiekin elkartutakoan (Artola, Berra, Miner...) Astigarraga, Arano, Donostia, Lezo, etabarretako adarretan barreiatu ziren.

En la actualidad gran parte de la vega de Astigarraga está ocupada por un polígono industrial de importancia y con acentuada prosperidad económica.

Segun datos suministrados por el investigador F. Borja Aguinagalde a finales del siglo XVII Fermín de Almandoz, acompañado de un familiar, emigró del lugar de Almandoz (Baztán), donde radicaba la casa solariega y de donde tomó el nombre, para instalarse en Gipuzkoa. La ramificación inicial del apellido en San Sebastián y Aya, llegó en los comienzos del siglo XVIII a Astigarraga.

En una época de relativa prosperidad, los Almandoz llegaron a ser una de las familias representativas de los nuevos tiempos. Más tarde, enlazados con antiguas familias de Hernani y alrededores (Artola, Berra, Miner...), se dispersaron en diferentes ramas por Astigarraga, Arano, San Sebastián, Lezo, etc.



Astigarraga goitik ikusita. Lehen planoan Foruen Plaza, bertan dago borobil beltz batez inguratuta Norberto Almandoz Mendizabal jaio zeneko etxea. Antzina etxe honek "Barberoena" zuen izena.

Vista aérea parcial de Astigarraga. En primer plano Foruen Plaza, donde se halla la casa, señalada con círculo negro, en la que nació Norberto Almandoz Mendizabal. Antiguamente esta casa llevaba el nombre de "Barberoena".

# Norberto Almandozen haurtzaro eta gaztaroa.

Astigarragako herri honetan jaio zen Norberto Almandoz 1893ko ekainaren 5ean, Foru enparantzan dagoen Barberoenea etxean. Handik laster ordea, Kale Nagusiko 20.era aldatu ziren Almandoz-eneara hain zuzen ere, etxearen aurrekaldean honela dioen oroitarri bat dagoelarik:

DON NORBERTO ALMANDOZ MENDIZABAL
1893-1970

Compositor insigne
de inspiración preclara
sacerdote ejemplar
vivió en esta casa.

Apaiz eta ereslari
on oña ziñan bietan!
Euskalerria kantari
dago zure omenetan.

Bertso hauek Altzako apaiz Zugastik idatzi zituen.

Norberto Almandozen bataioko agiriak honela dio: "Astigarragako Herrian, Gipuzkoako probintzian, Gasteizko Gotzoindegia, mila zortzireun eta larogeita hamairuko ekainaren seiean, nik D. Dionisio Solupe izenpedun apaiz, eta Ama Birjinaren Jasokunde parrokiko Laguntzaile, nere abadearen baimen bereziarekin ospe handitan haur bat bataiatu nuen, Norberto, Kloudio, Jose Antonio izenak ezarri nizkiolarik. Jose Antonio Almandoz eta Miner, Gipuzkoako herri honetako semea, eta Isabel Mendizabal eta Solupe, Gipuzkoako Mutriku herrikoa, senar-emazteen legezko semea da; arotza lanbidez, nire karguro daukadan parroki honetako bizilagun eta eliztar. Aitak aitortzen duenez, goueko hamarretan jaio zen Barberonea deritzan etxean. *Aitaren aldeko aiton-amonak* Pedro Almandoz, eta Luisa Miner dira, Gipuzkoako herri honetakoak, eta *amaren aldeko aiton-amonak* Franzisko Mendizabal, eta Javiera Solupe, Gipuzkoako Mutrikukoak. Aitamabitxiak Jose Antonio Arruabarrena, Gipuzkoako Errenteriako semea, eta amaren aldeko birramona, Gipuzkoako Mutrikuko alaba, hartzen zuten *izpirituzko ahaidetasuna*, eta gainerako betekizunez ohartarazi nituelarik. *Testigu*, Jose Maria Zapiain, lanbidez organujolea, eta Agustin Arrieta, lanbidez sakristaua, Gipuzkoako herri honetakoak biak ere, eta bertako biztanleak.
Eta egia delako sinatzen dugu, ut supra.

*Prudentzio Jose Rekalde*
*Dionisio Solupe*



# Infancia y adolescencia de Norberto Almandoz.

Norberto Almandoz nació en esta villa de Astigarraga el 5 de junio de 1893, en la casa llamada Barberoena, situada en la plaza de los Fueros. Al poco tiempo la familia se trasladó a Almandoz-enea, en Kale Nagusia, 20, edificio, en cuyo frontis se halla colocada una lápida, que dice:

DON NORBERTO ALMANDOZ MENDIZABAL
1893-1970

Compositor insigne
de inspiración preclara
sacerdote ejemplar
vivió en esta casa.

Apaiz eta ereslari
on oña ziñan bietan!
Euskalerria kantari
dago zure omenetan.

Estos versos fueron escritos por Zugasti, sacerdote de Alza.

La partida de bautismo de Norberto Almandoz dice: "En la Villa de Astigarraga, Provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a seis de Junio de mil ochocientos noventa y tres, yo el infrascrito presbítero D. Dionisio Solupe, Coadjutor de esta parroquia de la Asunción de Nuestra Señora, con licencia expresa de mi párroco, bauticé *solemnemente* un niño, a quien puse por nombres Norberto, Claudio, José Antonio. Es hijo legítimo de D. José Antonio Almandoz y Miner, natural de esta Villa, Provincia de Guipúzcoa, y de Isabel Mendizabal y Solupe, natural de Motrico, Provincia de Guipúzcoa, de profesión ebanista, vecinos y feligreses de esta parroquia de mi cargo. Nació, según confesión de su padre, a las diez de la noche de ayer en la casa llamada Barberoena. *Son sus abuelos paternos* D. Pedro Almandoz, y Dª Luisa Miner, naturales de esta Villa, Provincia de Guipúzcoa y *los maternos* D. Francisco Mendizabal, y Dª Javiera Solupe naturales de Motrico, Provincia de Guipúzcoa. Fueron padrinos D. José Antonio Arruabarrena, natural de Rentería, Provincia de Guipúzcoa, y la visabuela materna, natural de Motrico, Provincia de Guipúzcoa, a quienes advertí el *parentesco espiritual*, y demás obligaciones que contrageron. *Siendo testigos* D. José María Zapiain, de profesión organista, y D. Agustín Arrieta, de profesión sacristán, ambos de esta villa, Provincia de Guipúzcoa, y vecinos de la misma Villa.
Y por ser verdad lo firmamos, ut supra.

*Prudencio Jose Recalde*
*Dionisio Solupe*

Gure biografiatuari ezarri zitzaizkion izenetatik, hau da, Norberto, Klaudio eta Jose Antonio, aurrenekoa ekainaren 6ean bataio eguneko santuen izendegian azaltzen zen eta honekin gelditu zen bizi guztirako.

Jose Antonio Almandoz Miner (1866-1945) bere aita zenak gora–behera asko izan zuen bizitzan zehar eta, badirudi Norberto berak musiko bezala urte askotan izan zuen bizitza ibiltariaren aurrikuspen bat zela.

Zesta puntako pilotaria zenez, Jose Antonio Almandoz Argentina, Uruguay eta Astigarragan bizi izan zen, azkeneko honetan arotz lanetan ere aritzen zelarik.

Ama, Isabel Mendizabal Solupe (1869-1952), Mutrikun jaioa zen (Gipuzkoa) eta 1882an Astigarragara etorri zen, bere osaba Dionisio Solupe



Jose Antonio Almandoz Miner zesta puntako pilotari zeneko garaian.

De los nombres que impusieron a nuestro biografiado, Norberto, Claudio y José Antonio, el primero era el titular en el santoral del 6 de junio, día en que fue bautizado, y el que prevaleció durante toda su vida.

Su padre, José Antonio Almandoz Miner (1866-1945) tiene una vida ajetreada que parece premonitoria de la vida errante que durante muchos años llevará el propio Norberto, como músico.



José Antonio Almandoz y Miner, padre de Norberto Almandoz.

Como pelotari de cesta punta, José Antonio Almandoz residió entre Argentina, Uruguay y Astigarraga, donde trabajaba además como ebanista.

Su madre, Isabel Mendizabal Solupe (1869-1952), había nacido en Mutriku (Gipuzkoa) y de allí llegó a Astigarraga en 1882, cuando su tío sacerdote, Dionisio Solupe (1856-1934), fue nombrado coadjutor de la parroquia de Nuestra Señora de la Asunción en Astigarraga. Con el se trasladaron su madre y su sobrina, Isabel, que tenía en el momento 13 años.

José Antonio Almandoz e Isabel Mendizabal se casaron el 27 de julio de 1892.

Isabel poseía una sensibilidad musical especial y una excelente disposición para el canto. Su inquietud por la formación de los hijos configuró un

(1856-1934), Astigarrako Ama Birjina Jasokunde parrokiako koajutore izendatu zutenean. Honekin batera, bere ama eta garai hartan 13 urte zituen hiloba Isabel etorri ziren.

Jose Antonio Almandoz eta Isabel Mendizabal 1892ko uztailaren 27an ezkondu ziren.

Musikarako sentsibilitate aparta eta kanturako jarrera bikaina zituen Isabel Mendizabalek. Isabel oso kezkatua bere seme-alaben heziketaz, eta kulturak orohar eta musikak batipat, leku berezia zuten famili giroa sortu zuen.

Bederatzi seme-alaba izan zituzten Jose Antonio eta Isabelek artean: Norberto, Pedro, Aurelio, Tomas, Karmen, Pilar, Kontxesi, Asun eta Maria.

Pedro eta Aurelio oso gaztetandik irten ziren etxetik Argentinara joateko, Jose Antonioren anaia bat bertan bizi zela eta. Pedrok Buenos Airesen finkatu zuen bere bizilekua, Aureliano aldiz, urte batzuk igaro ostean Astigarragara itzuli zen. Gainerako senideak gurasoekin bizitu ziren, ikasketak burutzeko irteten hasi ziren arte.

Tomasek Medikuntza eta Odontologia ikasi eta Berastegin ihardun zuen. Karmen, Kontxesi eta Mariak Irakaskuntza egin zuten eta maistra bezela lan egin zuten; Karmenek erretiratu arte ihardun zuen eta Mariak berriz, bederatzi senideetatik gaurregun bizi den bakarrak, Astigarragako Agustindarren San Bartolome komentuan moja sartu zen arte. Kontxesi bere bizitza profesionalak Tolosako (Frantzia) Magisteritza Eskolara eraman zuen, han literatura eta musika irakasle bezala iharduteko. Asun eta Pilar gurasoen etxean gelditu ziren.

Halare, Astigarragako etxea da senide guztientzat benetako famili-etxea, egun jakinetan edo oporraldietan biltzen ziren lekua. Han elkarbanatzen zuten musikarako zaletasuna. Zeren Norberto bete-betean horretara dedikatua egoteaz gain, Tomasek biolina jotzen zuen, Karmenek mandolina eta Kontxesik pianoa. Orioko abade eta musika zale handia zen Isabelen anaia, José Antonio Mendizabalek ere harreman estua zuen familia honekin.

Ez da harritzekoa Norbertok, senideetan zaharrena izanik, bizitzan zehar begirunezko maitasun bilakatu zen estimazio berezi bat senideen aldetik jasotzea.





Isabel Mendizabal y Solupe, madre de Norberto Almandoz.

ambiente familiar, en el que la cultura en general y la música en particular tuvieron un lugar muy importante.

Nueve fueron los hijos de José Antonio e Isabel: Norberto, Pedro, Aurelio, Tomás, Carmen, Pilar, Concepción, Asunción y María.

Pedro y Aurelio salieron muy jóvenes del hogar familiar, para dirigirse a Argentina, donde residía ya un hermano de José Antonio. Pedro fijó su residencia en Buenos Aires, mientras que Aurelio, al correr de los años, regresó a Astigarraga. Los demás hermanos vivieron un tiempo en el hogar familiar, del que fueron saliendo, para realizar sus estudios.

Tomás estudió Medicina y Odontología y ejerció como médico en Berastegi. Carmen, Concepción y María cursaron Magisterio y ejercieron como maestras nacionales; Carmen hasta su jubilación y María, única superviviente de los nueve hermanos, hasta su profesión como monja en el Monasterio de San Bartolomé, de Canónigas de San Agustín en Astigarraga. A Concepción, su vida profesional le llevó hasta la Escuela de Magisterio de Toulouse

Dionisio Solupe koajutore eta kezka handitako apaiz aurrerakoiak, aparteko maitasuna zuen Norbertorekiko, ulerkorra bestalde Isabel hilobaren lehendabiziko semea zenez. Baina hori gutxi bailitzan, buru argia antzeman zuen honengan txiki-txikitandik. Bi urte zituen musikarako joera nabarmentzen hasi zenean, bere amak zuen dohaiagatik eragindo behar bada: "Ama, kantatu" zen Norberto txikiak behin eta birritan esaten zuena eta guztien oroimenean dirauena.

Bost urte zituenerako Norbertoren tutore handiak, Dionisio Solupek latinezko erantzunak buruz ikasarazi zizkion, hots, latinezko mezatan elizmutilari zegozkion erantzunak. Eta hau zuen berak mezalaguntzailerik gogozkoena, parrokian zein Santioko baselizan.

Astigarragan eskola publikoa egon arren, Norbertok Hernanin egin zituen bere lehen ikasketak Rikardo Rezola maisuarekin, harreman txit adeitsua izan zuelarik gero berarekin. Egunero joaten zen gure Norberto oinez Hernaniro, bazkaritako pardeltxo txikia hartuta.



Norberto Almandoz Lehen Jaunartze egunean.

(Francia), donde ejerció como profesora de literatura. Quedaron en el hogar familiar Asunción y Pilar.
Besteak beste, 1925eko urtea nabarmentzen da Norberto Almandozen ibilbidean, izan ere garaipen anitza lortu baitzuen urte honetan, Hondarribian iraileko 3tik 7ra Euskal Jaiak ospatzen zirela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuen musika Lehiaketan. Hondarribiko Udalak ere Aldundiarekin bateginik deitu zuen musika konposaketaren txapelketa. Aldundiaren Lehiaketara *"Hamar Euskal Abesbatz"* obra aurkeztu zuen Norberto Almandozek haurrentzat Melodia modalitatean, hiru ahots zurikoentzat harmonizatutako euskal doinu herrikoiak; pianorako Preludioetan *"Bocetos-Intermedios"*, hau ere euskal gai herrikoiei buruz. Udalak antolatutakora *"Illazkitan"* aurkeztu zuen, baritono bakarlaria eta lau ahots grabez osaturiko abesbatzentzako obra.

volvió a presentar sus "Cuatro melodías de Iparragirre", pero fuera de concurso. Se hallaban en el Jurado el P. Donostia, Jesús Guridi y Ramón Usandizaga. Estos elogiaron sobremanera la partitura y le dijeron que la debía haber presentado a concurso. Tambien Victor Zubizarreta en otra ocasión llegó a decirle:"... En las 4 canciones de Iparragirre has hecho un verdadero alarde de armonización. Porque cuidado que son vulgarotas la 2, 3 y sobre todo la 4. Sin embargo tu las has dignificado con tu armonía, ritmos y contrapunto..."

En 1922 participó en otro concurso. En esta ocasión se constituyó en San Sebastián una Junta del IV Centenario de la Vuelta al Mundo, que promulgó un premio al mejor Himno glorificador del insigne navegante Juan Sebastián Elcano. Cumplidas las fechas, el jurado dictaminó que las partituras, que llevaban por lema "Damon" y "Gora gizon askarrak" fueran premiadas sin prelación ninguna, por ser igualmente recomendables. Abiertas las plicas, "Damon" resultó ser original de Germán Landazábal (Araia 1884-1953) y "Gora gizon askarrak" de Norberto Almandoz. Después se supo que ésta era técnicamente superior, pero aquélla era más popular. Y así ocurrió, puesto que se impuso como himno en Getaria la de Landazábal y la de Almandoz quedó en el olvido. Este "Himno a Elcano" es una partitura para coro unisonal o coro de cuatro voces mixtas y piano. Con fecha de 22 de agosto de 1922 Norberto Almandoz recibió la comunicación oficial del premio y en ella le exponían que "convendría que la pieza musical de que es autor, la instrumente para banda, a fin de que pueda ser escuchada el 5 de setiembre con motivo de la solemne conmemoración que se prepara." El plazo era inminente, pero Almandoz realizó rápidamente la instrumentación, entregándola con fecha del 27 de agosto. La versión original fue editada en el diario local "El Pueblo Vasco" en ínfimas condiciones de lectura. Luego no ha conocido nueva edición.

El año de 1925 se distingue en la trayectoria de Norberto Almandoz por un triunfo múltiple en el Certamen musical organizado por la Diputación de Guipúzcoa con motivo de las Fiestas Euskaras celebradas en Fuenterrabía del 3 al 7 de setiembre. Tambien el Ayuntamiento hondarribitarra anunció su concurso de composición musical, uniéndolo al de la Diputación. En el Certamen de la Diputación Nor-

Hiru modalitateetan Lehen Saria eskuratu zuen, zeinak ikaragarrizko durunda izan zuen musika giroan eta Norberto Almandozentzat bapateko ospe eta sona.

Astigarragako bere jaioterrian, poz haundiarekin ospatu zen garaipena, eta udaldia bere jaiotetxean igarotzen zuenez, herri osoa hurbildu zitzaion zorionak ematera. Herriko Udalak hartutako akordioa ezagutarazi zion: "Jakinik Udal honek Hondarribiko musika lehiaketan berriki garaipena lortu duzula, urte honetako abuztuaren 29an ospatutako bilkuran zera erabaki du, aipatu garaipen horregatik gartsuki zoriontzea".

Bilbon 1919 eta 1920ean sarituak izan ziren ahots nahasientzako euskal kantak, Bilbo, Donostia, Tolosa eta Iruñeako euskal orfeoiak interpretatzen zituzten. Norberto Almandozen izena sona handi batek inguratu zuelarik.

Sari hauen erdiespen eta saritutako partituren hedapenarekin, Astigarragako konpositorea, euskal kulturmusikaren apostolu nagusienetarikoen artean kokatu zen.

Oraingoan, ahots zuri edo ahots berdinentzat egindako *"Hamar euskal abesbatz"* obra izango da berriro guztien ahotan bere izena jarriko duena. Erviti etxeak 1930ean argitaratu zuen partiturak, hedakuntza itzela lortu zuen. Begien bistakoa zen hutsune garrantzitsu bat betetzen zuela, aparteko kasuren batzuk salbu, ez zegoelako ahots zurientzat konposaturiko partiturarik. Arrazoi hori bide, Norberto Almandozen adiskide on zen Jose Arterok honela idatzi zuen TXISTULARI aldizkarian bere 17. zenbakian (1930):

"...Bi asmakizun haundi: Hiru ahots zurirentzako abestiak saritzeko Lehiaketa bat antolatzea eta Almandozenak saritzea... Berez Euskal gaiak bikainak badira, Almandozek apaintzeko jantzi dien soineko ponpox horrek, areagotu egiten du berauen xarma. Hor dago, harmonista moderno eta dotorearen zientzia guztia, jakintsu, trebe, kontrapuntista zuhur baten baliabideak, behar beharrezkoak guztiak ere, hiru ahotsei heuren muga estuetan ongi kantarazteko; aberastasun anitza eta doinu ozenak lortzeko imaginazio zorrotzak, disdiratsu azaltzen dira laudoriozko bilduma honetan..."



berto Almandoz presentó en la modalidad de Melodías para niños la obra "Diez Coros Vascos", melodías populares vascas, armonizadas para tres voces blancas; en la de Preludios para piano presentó "Bocetos-Intermedios", también sobre temas populares vascos. En el Certamen municipal presentó "Illazkitan", obra para solista barítono y coro de cuatro voces graves.

En las tres modalidades obtuvo el Primer Premio, lo que tuvo una gran resonancia en los medios musicales y supuso a Norberto Almandoz repentinamente un gran prestigio. En su pueblo natal, Astigarraga, se celebró el triunfo con gran alegria y todos se volcaban en felicitaciones, puesto que durante el verano él residía en su casa nativa. El Ayuntamiento de la Villa le comunicó el acuerdo municipal: "Noticioso este Ayuntamiento de su reciente triunfo, obtenido en el certamen musical de Fuenterrabía, acordó en sesión del día 29 de agosto último, felicitarle efusivamente por dicho triunfo."

Las canciones vascas para voces mixtas, premiadas en Bilbao en 1919-20 estaban siendo interpretadas por los orfeones vascos de Bilbao, San Sebastián, Tolosa y Pamplona. Lo que rodeó de gran aureola el nombre de Norberto Almandoz.

Con la consecución de estos premios y la difusión de las partituras premiadas, el compositor de Astigarraga se colocó entre los principales apóstoles de la cultura vasca musical.

Ahora su obra "Diez coros vascos" para voces blancas o voces iguales volvió a poner de moda su nombre. La partitura, editada por Casa Erviti en 1930, obtuvo una gran difusión. Era evidente que llenaba un hueco importante, puesto que no existían partituras para voces blancas, salvo contadas excepciones. Con este motivo José Artero, otro amigo sincero de Norberto Almandoz, escribía en la revista TXISTULARI, nº 17 (1930):

"...Dos grandes aciertos: el de hacer un Concurso para premiar canciones a tres voces blancas y el de haber premiado las de Almandoz... Si los temas vascos son hermosos, el gracioso atavío con que Almandoz los ha revestido, pone más realce sus encantos. Toda su ciencia de armonista moderno y elegante, los recursos de un sabio, hábil, discreto

Denborak arrazoi emango zion iritzi honi, hots, *"Hamar euskal abesbatz"*en partiturak argitalpen batzuk ezagutu baitditu eta kontaezin hainbat euskal eta ez euskal abesbatzek interpretatuak izan eta izango baitira, duen maila eta interes musikalo begien bistakoa delako.



Diez Coros Vascos

para tres voces blancas

(premiados por la Diputación de Guipuzcoa)

Harmonizados por

NORBERTO ALMANDOZ

Reg 1933

Partitura . . . . . Ptas. 7'60
Partes separadas cada una » 2'—

Estos coros pueden ser ejecutados por voces de hombres, transportándolo a un tono conveniente.

Propiedad del editor para todos los países.
Todos los derechos de ejecución, reproducción, transcripción y traducción están reservados.

CASA ERVITI
EDITORIAL DE MÚSICA
San Martín, 28 - San Sebastián :: Mercado, 14 - Logroño

Hondarribian 1925eko Euskal Jaietan saritua izan zen partitura.

Euskal musika konposaketaren lehiaketetan garaipen oparo hauen ostean, 1926an Iruñeako Udalak Lehiaketa Zientifiko Literario eta Artistiko bat antolatu zuen uztailean. Lehiaketako zenbait gaien artean, 23.zenb. Iruñeako Gotzain, Mateo Mugika, Jaun Ospetsuak ezarritako sari bat zegoen, *"Un salmo para las Vísperas de San Fermín (órgano y voces)"*, (San Fermin Bezperetako salmo bat, (organo eta ahots), izenburupean. Norberto Almandozek *"Dixit Dominus - Salmo 109"* lau ahots nahasi eta organorako, aurkeztu zuen Lehiaketara, "Laudemus viros gloriosos" hau da, "Gora gizon azkarrak"en lemapean, Norberto Almandozek bere bizitzan sarritan erabiltzen zuen esaera. Aipatutako saria berak eskuratu zuen.

Hala, 1932. urtean Mariano Beunza, Orfeon Pamplones-eko zuzendari ordeak, honela idazten zuen contrapuntista, necesarios para hacer bien cantar en sus estrechos límites a las tres voces, la sutil imaginación para lograr la riqueza varia y acentos sonoros, lucen con brillantez en esta laureada colección..."

El tiempo daría la razón a esta opinión, puesto que la partitura "Diez coros vascos" ha conocido varias ediciones y los distintos números han sido interpretados por un sin número de coros vascos y no vascos, y seguirán siendo interpretados, por su evidente calidad e interés musical

Tras esta etapa de triunfos en concursos de composición de música vasca, en 1926 el Ayuntamiento de Pamplona organizó un Certamen Científico Literario y Artístico durante el mes de julio. Entre los diversos temas del Certamen, en el nº 23 había un premio instituído por el Iltmo. Sr. Obispo de Pamplona, Mateo Múgica, bajo el título de "Un salmo para las Vísperas de San Fermín (órgano y voces)". Norberto Almandoz presentó al Certamen su "Dixit Dominus— Salmo 109" para 4 voces mixtas y órgano, bajo el lema "Laudemus viros gloriosos" (su equivalente en euskera "Gora gizon askarrak"), frase que Norberto Almandoz empleó con cierta frecuencia en su vida. Obtuvo el Premio señalado.

El año 1932 Mariano Beúnza, subdirector del Orfeón Pamplonés, escribía en las páginas de "Estampa Tradicionalista": "...Nuestro Orfeón ha ejecutado en diversas ocasiones composiciones de este modesto sacerdote con aplauso unánime de los más eminentes críticos y, desde hace cinco o seis años, canta en las Vísperas de San Fermín el salmo Dixit Dominus, de Almandoz, obra que obtuvo el premio en el Certamen organizado por el Ayuntamiento de la capital, al que se presentaron ilustres compositores..."

En 1936 el Orfeón Donostiarra de Juan Gorostidi lo incluyó en su repertorio, interpretándolo por primera vez en el mes de mayo. El acontecimiento tuvo un gran eco en la prensa donostiarra. A. de Easo escribía en El Diario Vasco:

"...El Salmo del maestro Almandoz, es sin duda alguna, una de las obras más conseguidas por su autor. El maestro Almandoz ha conseguido concretar un carácter de austeridad en su obra, que no es precisamente esta fisonomía hosca, reflejo de este paisaje gris de




Donostiako "El Pueblo Vasco" egunkarian 1920. hamarkadan argitara eman zen Norberto Almandozen abestietariko bat.

Una de las canciones de Norberto Almandoz, publicadas en la década de 1920 en el diario donostiarra "El Pueblo Vasco".

"Estampa Tradicionalista"ko orrialdeetan: "...Gure Orfeoiak behin baino gehiagotan interpretatu ditu apaiz apal honen konposizioak, kritiko bikainenen txaloak jasoaz beti ere, eta azkeneko bost, sei urte hauetan, San Fermin Bezperetan, Almandozen *"Dixit Dominus"* salmoa abesten du, zeinak hiriko Udalak antolatutako Lehiaketan saria lortu zuen, musikagile goren zenbait aurkeztu zirelarik bertara..."

Juan Gorostidiren Orfeoi Donostiarrak ere 1936. urtean bere erreperiorioan sartu zuen, maiatzeko hilean lehen aldiz interpretatzeko. Emankizunak ikaragarrizko durunda izan zuen donostiar prentsan. Honela idazten zuen A. de Easok El Diario Vasco egunkarian:

"...Almandoz maisuaren salmoa da ezbairik gabe, egilearen obrarik borobilena. Almandoz maisuak lortu du doitasun izaera bere obran zehaztea, hots, ez da sirimirizko paisaia goibel hau isladatzen duen fisonomia trauskil hau, hain zuzen ere, non gure artisten prozesu espiritual guztia esparru horretan bizi nahi den..."

Estrenaldiaren ostean, honela idatzi zion Juan Gorostidik 1936ko maiatzean Norberto Almandozi:

sirimiri, en cuyo marco se pretende vivir todo el proceso espiritual de nuestros artistas..."

Tras su estreno, en mayo de 1936 Juan Gorostidi escribía a Norberto Almandoz: "...El Salmo de V. es precioso. Causó profunda impresión y lo cantaremos en alguna otra ocasión. Mi deseo sería que V. lo oyera en su veraneo. ¿Lo conseguiré?... De todas maneras me he propuesto estrenarle a V. cada año una obra y de esa forma, Dios mediante, al cabo de 20 años, le habré cantado a V. una buena parte de su producción, dando así satisfacción a mi conciencia artística y vasca, que siente por V. admiración, grande como músico, pero mayor todavía como sacerdote..."

Junto a estas grandes obras premiadas en concursos, Norberto Almandoz había ido cultivando también la canción vasca para voz y piano.

A pesar de que anteriormente hemos afirmado que en su primera etapa de compositor fue la música religiosa la que ocupó su producción, dejó tambien páginas para piano, como "Momento musical" e "Historieta", en las que se percibe la inspiración fresca de un compositor jovencito, que domina las leyes musicales y promete llegar a niveles muy altos de arte.

"...Zuen salmoa bikaina da. Ikaragarrizko arrakasta izan zuen eta beste aldiren batean abestuko dugu berriro. Nire nahia ez da zuk udaldiren batean entzun ahal izatea baino. Lortuko ote dut?...Halabaina urtero Zure lan bat estreinatzeko proposamena egin dut eta honela, Jauna lagun, 20 urteren buruan zure bildumaren hein handi bat abestua izanen dut, nire zentzu artistikoari eta euskal kontzientziari, atsegina emanez, zeinak mirespen handia sentitzen duen Zutaz musiko bezala, baina are gehiago apaiz bezala..."

Lehiaketetan saritutako lan haundi hauen ondoan, Norberto Almandozek euskal abestiak ahots eta pianorako lantzen jarraitu zuen.

Lehen esan badugu ere, konpositorearen lehenaldiko bilduma musika erlijiosoak osatzen zuela batipat, baina utzi zituen baita pianorako orrialdeak ere, hots, *"Momento musical"* eta *"Historieta"* bezalakoak, bertan konpositore gazte baten inspirazio freskoa antzematen delarik, musika legeak ongi ezagutzen ditu eta argi dago arte munduan maila gorenetara heltzeko ahalmena duela.

Badakigu 1914az geroztik behintzat jarraitu zuela arian-arian euskal abestiak ahots eta pianorako garatzen, eta izan baditu, hogei bat doinu herrikoi harmonizatuak. Hauetariko batzuk "El Pueblo Vasco" egunkariko orrialdeetan argitaratu ziren 1920. hamarkadan. A. Donostiak 1928ko apirilean hau idatzi zion: "...Ikusi ditut "El Pueblo Vasco"ko zure gauzak. Bere orrialdeetan agertzen diren taiuzko bakarrak dira..."

Hay constancia de que por lo menos desde 1914 fue cultivando poco a poco la canción vasca para voz y piano, llegando a armonizar una veintena de melodías populares. De ellas, algunas fueron editadas en las páginas del diario "El Pueblo Vasco" en la década de 1920. El P. Donostia le escribió en abril de 1928: "...He visto tus cosas de "El Pueblo Vasco". Son las únicas decentes que aparecen en sus páginas..."




Una de las diez obras premiadas bajo el lema "Beñat Mardo Abeslari" por la Diputación de Vizcaya en 1920.

# Bere musikaren estetika berria.

Mende hasieran Norberto Almandozek izan zituen harmonia maisuek, hots, Eduardo Mokoroa, Nemesio Otaño eta Julio Valdesek, azken honekin denbora gutxi egon arren, musika erlijiosoaren aire berritzaileekin bat zetorren mentalitatea sortu zuten honengan, operistika estilo gailena atzera bota eta polifonia palestrinarraren eredua eragiten zutenak.

Joera hauen ordezkaririk nabarmenenak Pariseko Schola Cantorum eta Cecilianismo alemaniarra ziren.

Estetika honen islodarik leialena zela eta, Norberto Almandozen lehen aldiko musika hedatu zen eredu bezala, musika erlijiosoaren ondareo partitura berriez gehitzen eta musikagile guztien artean estilo txit homogenoa nagusitzen zihoan bitartean.

Halabaina, Norberto Almandozen buruan, konpositore onenengan legez, ideia propioak aske uzteko desio eta irrika bizia zebilen irakitan, modernitate antsiak eta harmonia berrien aurkikuntzak astinduta. Hona bada, lehenagotik abesbatzentzat konposatu eta Bilbon 1920an sarituak izan ziren euskal abestietan non lortzen duen lasaitasuna hain zuzen ere. Berak zera aitortu omen zuen: "Nire abestiak zailak dira abesbatzentzat. Zuzendariak izutu egiten dira eta ez dituzte entsaiatzen".

Ez zuten ez asko itxaron goien aipatu diren eskolei aurre egiten hasteko. Behar beharrezkoa zen Parisen ikasketak zabaltzea, baina Schola Cantorum-engana hurbildu gabe. Esan daiteke Aita Donostiak jarri zuela planteamentu hau praktikan eta bere atzetik erreskan pasa ziren konpositore berriak irakasle aurrerakoien klaseetatik.

Parisen Maurice Ravel bisitatzea zen Aita Donostiaren ekimena. Eta hona hemen zer dioen Ziburuko musikagile haundiak Eugène Coolsi zuzendutako gutunean: "...Donostiako nire herritar bat -zeren Berorrek jakin behar du, guk euskaldunok bi aberri ditugula-, Aita Donostia etorri zaidala bisitatzera, bere lanak ezagutarazi eta aholkua eskatzera... Musikarako duen sensibilitate txit delikatua deskubritzeko zoria izan dut, lantzea besterik ez zaio falta. Nik ezin dut eginkizun horretaz arduratu, neronek ere tarteka baino ez baitdut lan egiten. Baina,



# Su nueva estética musical.

Los profesores de armonía que Norberto Almandoz tuvo en los comienzos de siglo, Eduardo Mocoroa, Nemesio Otaño y Julio Valdés, éste último por breve tiempo, habían creado en él una mentalidad de acuerdo con las corrientes renovadoras de la música religiosa, que promovían el rechazo al estilo operístico predominante y la imitación de la polifonía palestriniana.

Los focos más representativos de estas tendencias eran la Schola Cantorum de París y el Cecilianismo alemán.

Fiel reflejo de esta estética, la música de Norberto Almandoz de su primera época fue difundida como modelo, a la vez que fue engrosando el fondo de nuevas partituras de música religiosa, en las que predominaba un estilo muy homogéneo entre todos los compositores.

Sin embargo en la mente de Norberto Almandoz, como en la de los buenos compositores, bullía el deseo de dar rienda suelta a sus propias ideas, espoleado por un ansia de modernidad y descubrimiento de nuevas armonías. Su desahogo tiene lugar en las canciones vascas para coro, premiadas en Bilbao en 1920 y compuestas con anterioridad. El mismo llegaría a decir: "Mis canciones para coro son difíciles. Los directores se asustan y no las ensayan."

La reacción contra las escuelas arriba señaladas no se hizo esperar. Era conveniente ampliar estudios musicales en París, pero sin acercarse a la Schola Cantorum. Puede decirse que el P. Donostia fue quien puso en práctica este planteamiento y tras él desfilaron en cadena los nuevos compositores por las clases de los profesores calificados de avanzada.

La iniciativa del P. Donostia consistió en visitar en París a Maurice Ravel. He aquí las palabras del gran músico de Ziburu en carta dirigida a Eugène Cools: "...Un compatriota mío -porque ha de saber Ud. que los vascos tenemos dos patrias-, l'abbé Donostia de San Sebastián, me ha visitado para darme a conocer sus obras y pedirme consejo... He tenido la agradable sorpresa de descubrir en él una

beharbada Berorrek. Erantzungo al lidake ea atsegin zaion ala ez?..." Eugène Coolsek proposamena onartu zuen, eta Aita Donostia oso pozik gelditu zen honen erakutsiaz eta Norberto Almandozi gomendatu zion irakasle honekin ikasteko. Gipuzkoako Foru Aldundiko beka lortutakoan, Almandoz Parisera joaten da 1920. urtean. Azken maisuaren teoria berriak interesatzen zitzaizkion batipak, orkestrazio jakintzak baino gehiago, ze arlo honetaz gero ere ezer gutxi baliatu baitzen.

Sevillara itzulitakoan bere lehen ametsa, azkenaldian ikasitako guztia agertuz obra bat konposatzea zen. Eta 1922an *"Salve Regina en honor de la Virgen de Aranzazu"* obra amaitu zuen, abesbatz, bakarlari eta orkestrarentzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaini zion, jasotako bekagatik eskerrak eman nahirik. Esan daiteke hau dela oztopo gutxien pairatu duen obra. Bere inspirazioa espresio askatasun handi batekin egurasten da, interpretearentzat suposatzen duen zailtasun teknikoetan erreparatu gabe. Partitura honen estetika ezin da eskola jakin batean kokatu. Hori bai, nabaria da frantzes eragina, Parisen jasoberriak dituen ikasketak bide. Halabaina,




1922an Norberto Almandozek idatzitako partitura, Parisen ikasteko Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka eskertzeko.

sensibilidad musical delicadísima, a la que sólo falta cultivarla. A mí me resulta imposible encargarme de esa tarea; no pudiendo yo mismo trabajar sino con intermitencias. Pero he pensado en Ud. ¿Podría decirme si le agrada?..." Eugène Cools aceptó la proposición. El P. Donostia quedó muy satisfecho de sus enseñanzas y él mismo recomendó a Norberto Almandoz que estudiase con su profesor. Conseguida la beca de la Diputación de Guipúzcoa, Almandoz se trasladó a Paris en 1920. Le interesaban sobremanera las teorías nuevas de su último profesor, más que el conocimiento de la orquestación, que en definitiva aprovechó poco en su trayectoria posterior.

De regreso a Sevilla, su primera ilusión era componer una obra, en la que expusiese sus nuevos conocimientos. En 1922 concluyó una "Salve Regina en honor de la Virgen de Aránzazu" para coros, sólo y orquesta, que dedicó a la Excelentísima Diputación de Guipúzcoa, en agradecimiento por la beca recibida. Puede decirse que es la obra, en la que menos cortapisas ha tolerado. Su inspiración campea con una gran libertad de expresión, sin reparar en dificultades técnicas para el intérprete. No puede colocarse la estética de esta partitura en una determinada escuela. La influencia francesa es palpable, por las enseñanzas recién recibidas en París. A pesar de todo diremos que en esta partitura todo es personalísimo de Almandoz. Hay siempre un recuerdo de su personalidad anterior. Pero las fugas y desdoblamiento de las voces conllevan un tratamiento cromático más exigente, que toda su música anterior. Difícil partitura, por eso mismo olvidada por los coros vascos.

Recordemos aquí la incomprensión de que fue rodeada su obra "Cuatro canciones de Iparragirre" por el Jurado del concurso celebrado en 1920 en Urretxu. El problema arrancaba de la gran libertad de armonía, que Almandoz desarrollaba en esta partitura, inaceptable para mentalidades de signo tradicional. Esta misma libertad es manifiesta en las canciones vascas para voz y piano. El compositor respeta la melodía popular tal como es, pero la arropa con juegos armónicos de gran ingenio y novedad, confiando al teclado dificultades, que el pianista puede resolver con holgura.

Sin embargo en las obras escritas con posterioridad, sí se perciben limitaciones impuestas por el

esan behar dugu, partitura honetan guztia Almandozek bere berea duela. Beti dago aurreko nortasunaren oroimena. Hala ere, oraingo fuga eta ahots bikoizketak trataera kromatiko exigenteagoa daramate, bere aurreko musika guztiak baino. Partitura gaitza delako, ahantzia dute euskal abesbatzek.

Oroit dezagun hemen 1920ean Urretxun ospatu zen lehiaketan *"Iparragirreren lau abestiak"* lanak Epaimahaiaren aldetik jasan zuen ulertezina. Arazoa, partitura honetan Alamandozek garatzen zuen harmonia askatasun ikaragarrian zetzan, zeinu tradizionaleko mentalitate haientzat onartezina zelako. Askatasun hau bera agertzen da ahots eta pianorako euskal abestietan. Musikagileak herri doinua den bezala errespetazen du, baina berritasun eta zorroztasun handiko joku harmonikoekin jazten du, pianistak erraztasunarekin gainditu ditzakeen zailtasunak tekladoari emanez.

Halabaina, gero idazten dituen lanetan, eskatzaileak ezarritako mugak antzematen dira. *"Hamar euskal abesbatz"* haurren abesbatzentzat eginikoak modernoak dira, baina agresibitate gabeok. *"Dixit Dominus"*, Iruñeako San Fermin Bezperetan abesteko egindakoak, koro eta organoan egitura sendoa aurkezten du, baina bere trataera *"Salve Regina"* baino tradizionalagoa da nabarmenki.

Antzinako lagun galiziarrek bertako doinu herrikoien harmonizazioa eskatu zioten. Eta 1928. urte aldera beraientzat *"Ay, la, le, lo"* eta *"Alal del Cerbreiro"* 6 ahots nahasiko koruentzat konposatu zituen. 1934.ean gauza bera egingo zuen Juan M Thomas mallorkatar musikagileak eta Capella Classica de Mallorcako zuzendariak. Honek *"Vida d'etsacaiador"* (Inaustariaren bizitza) konposatu zuen, 6 ahots nahasiko koruentzat besteak egin zuen bezala.

Hamarkadak iragan heinean Norberto Almandozek musika erlijiosoa konposatuko du, interpretari eskatzailearen arabera exigentzi tekniko ugari erantsita.

Hala, 1932an *"Oratorio-Himno a San Alfonso Maria de Ligorio"* konposatu zuen 3 ahots berdin eta organorako.

Eta 1940. hamarkadan *Cantigas de Alfonso X el Sabio* konposatu zuen, 3 ahots zurikoentzat; *Hosanna*, 4 ahots grabe eta organorako; *Responsorios de Semana Santa*, 4 ahots grabekoentzat; *Adoro te devote*, 4 ahots grabekoentzat; *Missa de Adviento y*



destinatario. "Diez coros vascos" para coros de niños son modernos, pero sin agresividad. "Dixit Dominus", salmo destinado a ser cantado en las Vísperas de San Fermín de Pamplona, presenta una sólida estructura en el coro y en el órgano. Pero su tratamiento es sensiblemente más tradicional que la "Salve Regina".

Sus antiguos amigos gallegos le solicitaron la armonización de melodías populares gallegas. Para ellos compuso hacia 1928 "Ay, la, le, lo" y "Alalá del Cebreiro" para coro de 6 voces mixtas. En 1934 haría lo mismo Juan Mª Thomas, compositor mallorquín y director de la Capella Classica de Mallorca. Para ellos compuso "Vida d'etsacaiador" (Vida del podador), también para coro de 6 voces mixtas.

En el transcurso de las décadas posteriores Norberto Almandoz fue componiendo música religiosa, con una gran variedad de exigencias técnicas, según era el intérprete destinatario.

En 1932 compuso el Oratorio-Himno a San Alfonso María de Ligorio, para 3 voces iguales y órgano.
En la década de 1940 compuso las Cantigas de Alfonso X el Sabio, para 3 voces blancas; Hosannna, para 4 voces grave y órgano; Responsorios de Semana Santa, para 4 voces graves; Adoro te devote, para 4 voces graves; Missa de Adviento y Cuaresma, para 4 voces iguales; Pueri Hebraeorum, para 4 voces mixtas; Ave María, para 4 voces graves (dedicado al Coro Easo); Te Deum, para 3 voces iguales y órgano (dedicada al Cardenal Arzobispo de Sevilla, Pedro Segura).

En la década de 1950 compuso Empti enim estis, para 4 voces graves; Ave Maria, para barítono y órgano (In memoriam Celestino Sarobe); Magne Pater Augustine, para 4 voces graves y órgano; Christus vincit, para 4 voces graves o 6 voces mixtas y conjunto de metales u órgano (dedicada al Cardenal Arzobispo de Sevilla, José Mª Bueno Monreal); Virgo in hortu, para 4 voces graves y órgano.

Probablemente la última obra que compuso Norberto Almandoz fue su "Berceuse" o Improvisación para piano sobre una canción vasca, escrita en 1958 para participar en el "Homenaje pianístico a la

*Cuaresma*, 4 ahots berdinekoentzat; *Pueri Hebraeorum*, 4 ahots nahasikoentzat; *Ave Maria*, 4 ahots grabekoentzat (Easo abesbatzari eskainia); *Te Deum*, 3 ahots berdin eta organorako (Pedro Segura, Sevillako Kardinal Artzapezpikuari eskainia).

*Empti enim estis*, 1950. hamarkadan konposatu zuen, 4 ahots grabekoentzat, baita *Ave Maria*, baritono eta organorako (In memorian Celestino Sarobe); *Magne Pater Augustine*, 4 ahots grabekoentzat eta organoa; *Christus vincit*, 4 ahots grabe edo 6 nahasikoentzat eta metalezko konjunto eta organoa (José M Bueno Monreal, Sevillako Kardinal Artzapezpikoari eskainia); *Virgo in hortu*, organo eta 4 ahots grabekoentzat.

*"Berceuse"* edo euskal kanta baten inguruan pianorako Inprobisazioa izango zen ziurrenera ere Norberto Almandozek konposatu zuen azkeneko obra, *"Homenaje pianístico a la memoria de Juan Crisóstomo Arriaga"* zelakoan parte hartzeko 1958an idatzi eta 1959ko urtarrilean Bilbon estreinatu zena.




Norberto Almandozek Segura Kardinalari eskainitako partitura, honek 1939an Kalonje eta Kapera-Maisu izendatu ostean.

memoria de Juan Crisóstomo Arriaga", que se estrenó en Bilbao en enero de 1959.


Al Excelentísimo y Reverendísimo
Doctor don JOSE MARIA BUENO MONREAL, Arzobispo de Sevilla.

«CHRISTUS VINCIT»

Aclamaciones para coro de seis voces mixtas
o
cuatro de hombres, trompas, trompetas y trombones u órgano.

NORBERTO ALMANDOZ

Tesoro Sacro Musical
Buen Suceso, 22
MADRID

Partitura dedicada al nuevo Arzobispo de Sevilla, Doctor Bueno Monreal, tras su elección.

## Pedagogoa eta organista.

Baina 1927an Norberto Almandoz musika irakasle izendatzen du Sociedad Económica Sevillana de Amigos del País erakundeak eta kargu honen onespenak epealdi berri bat markatuko du bere bizitzan.

Sociedades Económicas de Amigos del Pais bezalako erakundeek bere erregioetako egoera kulturala aztertu eta hutsuneak betetzen saiatzen ziren.

Sevillan Musika Kontserbatoriorik ez zegoenez gero, behar beharrezkoa zen arte honen irakaskuntz sarea hedatzea.

Lehendik Norberto Almandoz oso ezaguna bazen Andaluziako hiriburuan bere musikarako doaiengatik, ordutik aurrera giltzarri bilakatu zen Sevillako musika giroan. Bere esku zuen ahalmen guztia jarri zuen musika irakasteko plangintzarik onenaren zerbitzura. Begien bistakoa zen Sociedad Económica de Amigos del Paisen ematen ziren klaseak askiez zirela. Proiektuak orain Unibertsitate aldera zuzentzen ziren, ezen arrazoi desberdinengatik batere erraza bilakatzen ez zena. 1929an Luis Urteagak Donostiatik idazten dio: "...Jaungoiko Ahaltsuak, David profetak eta Santa Zezilik Unibertsitate horretako irakasle egin zaitzatela..."

Norberto Almandozek badaki bere musika jakintza guztiek inolako titulu ofizialen babesik ez dutela. Hori dela eta, bere irakasle izandakoek emandako ziurtagiriak biltzeari ekiten dio, hots, Eduardo Mokoroa, Beltran Pagola eta Eugène Cools, Orensen Maisutza ihardun zuenekoa eta Sevillako Organistiako ziurtagiria, baita lehiaketa desberdinetan eskuratutako sarien ziurtagiriak ere.

Hala, 1930eko ekainaren 13an Cordobako Musikako Kontserbatorio Ofizialean aurkeztu zen eta egun bakar batean honako hauek ateratzea lortu zituen: Solfeoko hiru urte, Pianoko zortzi urte, Piano Laguntzaile bi urte, Musikaren Estetika eta Historia, eta Harmonia eta Piano Laguntzaile bi urte. Ziurtagiri ofizial guzti hauekin Norberto Almandozek musikaren pedagogia irakasteko edozein lanposturako aukera egin dezake. Baina bistakoa zen bizitzaren orientabide berri honek bere ohizko erretiroa hausten zuela, su eta gar musika konposatzeari ekiteko. Hemendik aurrera bere ekoizpena askoz gehiago tartekatuko da eta egiten duena eskaera eta enkar-

## El pedagogo y el organista.

En 1927 Norberto Almandoz fue nombrado profesor de música en la Sociedad Económica Sevillana de Amigos del País. La aceptación de este cargo marca una nueva etapa en su vida.

Las Sociedades Económicas de Amigos del País analizaban la situación cultural de sus regiones y trataban de subsanar deficiencias.

En Sevilla no existía Conservatorio de Música y era necesario ampliar la red de enseñanza de este arte. Norberto Almandoz era ya muy conocido en la capital andaluza por sus dotes musicales y desde ahora se fue convirtiendo en un hombre clave en los medios musicales sevillanos. Puso toda su energía al servicio de una mejor planificación de la enseñanza de la música. Las clases en la Sociedad Económica de Amigos del País eran palmariamente insuficientes. Los proyectos se dirigían ahora a introducirse en la Universidad, lo que no era nada fácil, por razones muy diversas. En 1929 Luis Urteaga le escribe desde San Sebastián: "...Que el Cristo del Gran Poder, el Profeta Rey David y Santa Cecilia le hagan profesor de esa Universidad..."

Norberto Almandoz sabe que todos sus conocimientos musicales se hallan sin apoyo de títulos oficiales. Por eso se lanza ahora a reunir certificados de quienes habían sido sus profesores, Eduardo Mocoroa, Beltrán Pagola y Eugène Cools, certificados de su Magisterio en Orense y de su Organistía en Sevilla, certificados de los premios obtenidos en los distintos Concursos.

El 13 de junio de 1930 se presentó al Conservatorio Oficial de Música de Córdoba y en un sólo día obtuvo el título oficial de los tres años de Solfeo, ocho de Piano, Estética e Historia de la Música, Armonía y dos años de Acompañamiento al Piano. Con toda esta documentación oficial Norberto Almandoz puede optar a cualquier puesto de pedagogía musical. Pero era evidente que esta nueva orientación de su vida rompía su tradicional retiro, para dedicarse con ahinco a la composición musical. Desde ahora su producción se espaciará mucho más y obedeciendo siempre a solicitudes y encargos. Si se exceptuan su "Elegía" para violoncello y piano y su "Retreta alegórica en honor de



Bitor Zubizarreta Sevillako Katedralean, Norberto Almandozek 1929ko uztailaren 28an antolatutako kontzertuan, bere organo emanaldiaren ondoren.

Víctor Zubizarreta tras su concierto de órgano en la Catedral de Sevilla, concierto organizado por Norberto Almandoz el 28 de julio de 1929.

guak betetzeko izango da beti ere. Biolontxelo eta pianorako *"Elegía" eta "Retreta alegórica en honor de descubridores y colonizadores de América"* salbuesten baditugu, bere partitura guztiek musika erlijiosoa jasotzen dute, gehienek argia ikusi dutelarik.

Baina ez dezagun ahantz bere lehen egitekoa Sevillako Katedraleko Lehen Organistarena zela, Kapera Maisuarena baino gutxiago ordaintzen zena, hain zuzen ere, baina bere betebeharrak ere anitz txikiagoak ziren. Organo ezagupen eta interpretazio teknikaren heziketa musikala oso handia behar zuen, halo nola oraino osatu gabeak ziren obra askori laguntzeko harmonia bezalaxe. Organistaren berezitasun garrantzitsuetariko bat, inprobisaziorako zuen dohaia zen. Liturgi ospakizunetan "hutsuneak betebeharrak" erakusten zion organistari etengabeki inprobisatzea. Honela bada, dohain bat zena, benetako bizio bilakatu zen: organorako musika konposatzeko ukapena. Guzti hau eman zen Norberto Almandozen kasuan, organistaren eginbeharrak betetzeko aparteko ahalmena baitzuen. Aldiz ordea, musikagile bezala ez zuen sentitu inolako erakarpenik musika genero honetaz. Bere liburutegi partikularraren zokoetan egon badago Bahc, H

descubridores y colonizadores de América", todas sus partituras serán de música religiosa y casi toda será editada.

Pero no olvidemos que su primera obligación era la de Organista 1° de la Catedral de Sevilla, plaza menos retribuída que la del Maestro de Capilla, pero sus obligaciones eran incomparablemente menores. Necesitaba una gran formación musical de técnica de interpretación y conocimiento del órgano, así como de armonía para acompañar las obras, todavía muchas presentadas sin realización completa. Cualicad importante del organista eran sus dotes para la improvisación. Su obligación de "llenar los huecos" durante la celebración litúrgica, habituaba al organista a improvisar constantemente. Así lo que era una gran cualidad, se convertía en auténtico vicio: el rechazo a componer música para órgano. Todo esto se dio en el caso de Norberto Almandoz, capacitado excepcionalmente para cumplir sus obligaciones de organista. Pero por el contrario, como compositor, no sintió ningún atractivo por este género de música. En los fondos de su biblioteca particular existe una hermosa sección de partituras organísticas de Bach, Händel, Mendels-

ndel, Mendelssohn, Corelli, Delépine, Dubois, Gauss, Widor, Guilmant, Franck, etab., etabarren organorako partitura sail ederra; 70 musikagile inguru osatu arte antzineko eta modernoen artean. Partitura guzti hauek oso eskukatuak daude, eta hortik pentsa daiteke asko erabili zituela.

Ez da erraza organista bezala bere iharduera estraliturgikoa zehaztea.

Parra-parra eman al zituen kontzertuak Katedralean edo handik kanpo ere?

Egon badago Sevillan 1929ako martxoan ospaturiko "IV Congreso Internacional de Ciudades"en Kongresistei eskainitako entzunaldi baten berri. Kasu honetan Norberto Almandozek ondoko egitarau hau interpretatu zuen:

I

| | |
|---|---|
| Gran Coro dialogado | E. Gigout |
| Dos Corales: | |
| a) Señor, ten misericordia de mí | |
| b) De todo corazón | J. S. Bach |
| Preludio, Fuga y Variación | Cesar Franck |

II

| | |
|---|---|
| Pascua Florida | A. Mailly |
| Largo | A. Dvorak |
| Scherzo en Sol | E. Bossi |
| Canon | E. Torres |
| Toccata | L. Boellmann |

Musikagile bezala organorako bere obren zerrendan hasberriko bakar bat agertzen da *"Plegaria"*.

Honez gero, 1926 urtean Luis Iruarrizagak, Repertorio Orgánico Españoleko egileak, honela idatzi zion Norberto Almandozi: "...Oso aurreratua daukat jadanik espainiar egileak soilik hartuta egiten ari naizen organo Bilduma. Datorren Urtarrilerako guztia prest edukitzeko asmoa dut. Eta zure izena Bilduma honetan behar bezala adierazita egotea nahi nuke, zuzentasun, adiskidantza eta herkidetasunagatik. Honela bada, arren eskatzen dizut, izaera desberdineko lau lantxo egin diezazkidazun (Sarrera, Eskaintza, Jasokuntza Martxa, etabar, etab.,) oso, oso kontuan izanik, jo errazak eta esku txikikoentzat eta izaera oso melodikoak izatea ez du axola laburrak badira ere. Garrantzitsuena zera da pertsona apaletan

sohn, Corelli, Delépine, Dubois, Gauss, Widor, Guilmant, Franck, etc etc. hasta un total de 70 compositores antiguos y modernos. Todas estas partituras están muy manoseadas, lo que da a entender que las manejó mucho.

No es fácil concretar su actividad extralitúrgica como organista.

¿Se prodigó en conciertos en la Catedral o fuera de ella?

Sí hay constancia de una audición ofrecida a los Congresistas del IV Congreso Internacional de Ciudades, que tuvo lugar en Sevilla en marzo de 1929. En esta ocasión Norberto Almandoz interpretó en el órgano de la Catedral el siguiente programa:

I

| | |
|---|---|
| Gran Coro dialogado | E. Gigout |
| Dos Corales: | |
| a) Señor, ten misericordia de mí | |
| b) De todo corazón | J. S. Bach |
| Preludio, Fuga y Variación | Cesar Franck |

II

| | |
|---|---|
| Pascua Florida | A. Mailly |
| Largo | A. Dvorak |
| Scherzo en Sol | E. Bossi |
| Canon | E. Torres |
| Toccata | L. Boellmann |

Como compositor en la lista de sus obras para órgano solo existe una primeriza "Plegaria".

Ya en 1926 Luis Iruarrizaga, autor del Repertorio Orgánico Español, escribió a Norberto Almandoz: " Llevo ya muy adelantada una Colección orgánica de autores exclusivamente españoles. Pienso tener todo listo para el mes de Enero próximo Yo quisiera que su nombre estuviera debidamente representado en esta Colección, por justicia, por amistad y por paisanaje. Así pues le ruego muy encarecidamente me haga cuatro obritas de índole diversa (Entrada, Ofertorio, Elevación, Marcha, etc. etc.) cuidando mucho, muy mucho, de que sean fáciles de ejecución y para manos pequeñas y de carácter muy melódico; no importa que sean breves. Lo que



Sevillako Katedraleko organoa. Hemen ihardun zuen Norberto Almandozek 1919tik 1939arte.

gogoa ernaraztea; hori bai, genero eta prozedura modernoetakoa izan liteke..." Luis Iruarrizagak behin da




Hiru organojoleen kontzertua: Norberto Almandoz, Nemesio Otaño eta Bitor Zubizarreta, 1929ko maiatzean.

importa es que despierten simpatía en los humildes; pueden ser de género y procedimientos modernos". Luis Iruarrizaga volvió a insistirle más tarde en su petición, sin obtener resultado positivo.

También Victor Zubizarreta el mismo año le escribía: ..."¿No hace V. nada para órgano?. Yo creo que debiera de hacer algo con pretensión, es decir, tratando al instrumento con verdadera amplitud, tanto en las manos como en los pies...". Tampoco estas palabras surtieron ningún efecto positivo. Algo había en la mente de Almandoz que no cuadraba con el órgano y su entorno musical. De ninguna manera estoy sugiriendo que desconociese los recursos del instrumento rey. Basta con analizar su salmo "Dixit Dominus", premiado en 1926 en Pamplona, para comprobar su capacidad de compositor de música de órgano. Con el paso de los años, sobre todo desde su nombramiento como Maestro de Capilla, huía del teclado, incluso del piano al que se acercaba solamente, como instrumento de estudio y trabajo.

En una de sus visitas al País Vasco, se juntó con Luis Urteaga y José María González Bastida, excelentes organistas. Y les lanzó esta pregunta: "¿Saben a dónde nos mandará Dios, cuando muramos?" Y su propia respuesta fue: "¡Al limbo, por habernos dedicado a organistas!"



PROGRAMA

1.ª PARTE

1.- Sonata, *Mendelshon.*
2.- Andantino, *Cesar Frank.*

Por el SR. ALMANDOZ

3.- Tannahuser, Coro de Peregrinos, *Wagner.*
4.- Canción Montañesa, *N. Otaño*

Por el R. P. N. OTAÑO

2.ª PARTE

1.- Toccata y Fuga, *Bach.*
2.- Allegretto, *Guilmant.*
3.- Final, *Widor.*

Por el SR. ZUBIZARRETA

Concierto de tres organistas: Norberto Almandoz, Nemesio Otaño y Víctor Zubizarreta en mayo de 1929.

# Audición de Música Religiosa

QUE TENDRÁ LUGAR EN LA

SANTA IGLESIA CATEDRAL

EL DÍA 20 DE MARZO DE 1929

DESPUÉS DE LAS HORAS DE CORO

OFRECIDA A LOS

SRES. CONGRESISTAS

DEL

IV CONGRESO INTERNACIONAL DE CIUDADES

## PROGRAMA

I

| | |
|---|---|
| Gran Coro Dialogado. . . . . . | E. GIGONT |
| Dos Corales . . . . . . . . . . | J. S. BACH |
| A) «Señor, ten misericordia de mí» . | |
| B) «De todo Corazón» . . . . . | |
| Preludio, Fuga y variación. . . . | C. FRANCKC |

II

| | |
|---|---|
| Pascua Florida . . . . . . . . . | A. MAILLY |
| Largo. . . . . . . . . . . . . | A. DVORAK |
| Scherzo en Sol . . . . . . . . . | E. BOSSI |
| Canon . . . . . . . . . . . . . | E. TORRES |
| Toccata . . . . . . . . . . . . | L. BOELLMAN |

ÓRGANO

Ejecutado por el Beneficiado Organista de la Santa Iglesia Catedral, D. Norberto Almandoz.

**(Sirve de invitación)**

17,50 p. m. TARDE / SOIR / NACH MITTAG / AFTERNOON

Norberto Almandozek interpretaturiko organo kontzertua, Sevillako Katedralean 1929ko martxoaren 20ean.

Concierto de órgano interpretado por Norberto Almandoz el 20 de marzo de 1929 en la Catedral de Sevilla.

birritan eskatu zion arren, ez zuen inoiz erantzunik jaso. Urte berean Bitor Zubizarretak idatzi zion: "...Ez al du B.ek organorako ezer egiten? Nik uste dut zerbait gogoz egin beharko lukeela, hau da, instrumentua benetazko zabaltasunez tratatuz, eskuetan zein oinetan..." Baina hitz hauek ere ez zuten inolako eraginik izan gure musikariarengan. Zerbait zegoen Almandozen buruan organo eta honen inguru musikalarekin artekatzen ez zena. Eta ez dut esan nahi inolaz ere, tresna erreginaren baliabideak ezagutzen ez zituenik. Nahikoa da horretarako *"Dixit Dominus"* salmoa aztertzea, organo musikagilearen ahalmena egiaztatzeko. Urteak aurrera doazen heinean, Kapera-Maisu izendatzen dutenetik aurrera batipat, tekladutik ihes egiten du, baita ikasteko eta lanerako bakarrik hurbiltzen zen pianotik ere.

Euskal Herrira egin zuen ikustaldietako batean, Luis Urteaga eta Jose Maria Gonzalez Bastida, aparteko bi organojoleekin elkartu zen eta, galdera hau luzatu zien: "Ba al dakizute nora bidaliko gaituen Jaunak hiltzen garenean?" Eta bere erantzuna: "Linbora, organujole izateagatik!".



Coro de la Catedral de Sevilla.